

# anaitasuna

1980.KO UZTAILAREN AZKENA. ABUZTU OSOA 404.ALEA 60 PZTA.

Haurra  
pedagogiaren  
objektua.

Agurain  
eta idazkaria.

Israelera  
Ulpana  
ikasten.

Donostiako  
XV. Jazzaldia:  
Genuino sabor  
americano.

Isoterismoa:  
ardi Haroko  
okabide majikoa.

ZELI BARRA ELUSKAL PRENTSA

# Porque lo nuestro es Vizcaya

## Bizkaia geurea deláko

*Confie en nosotros*

*Zere nstoa guzan*




**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
**BILBO AURREZKI KUTXA**

AZKUE BIBLIOTEKA  
EUSKALTZAINDIA  
BILBO

6657

6 SET. 1980

# aurkibidea



- 3. Aurkibidea.
- 4. Artikuluburua.
- 5. Agiriak.
- 6. Zeruko Argia.
- 8. Agurain eta Idazkaria. J.Iruretagoiena.
- 10. Euskal Herritik Israelera. Euskaltzaindiaren prentsa bulegoa.
- 11. Euskaldunok Euskal Herrian bizi nahi dugu. J.B. Jauregi.
- 12. Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. Euskaltzaindiaren prentsa bulegoa.
- 14. U.E.U.ren kronika bertsoan. Txepetxa.
- 16. Israelen, zer berri. J.R. Etxebarria.
- 18. Tolosako Udalak Euskal gobernuari...
- 20. Ttanta. Ekatxa.
- 22. Oihanaren abarrotsa. T. Trifol.
- 24. Afganistan ez berriz. M.J. Esteban.  
Hego-Afrikaren beltzak ikusten ari dira. T.Trifol.
- 26. Elkarrizketa biziak.
- 28. Edith Holdenen egunkari izkutua. M.A. Landa.
- 30. Komunean irakurtzeko gaiak: Euskarak duen diakronia. T.Trifol.  
Pedagogiaren objektua eta hurrekin zer eta nola lortu nahi dudan.  
Klaudio.
- 34. Esoterismoa (1): Erdi Haroko jokabide magikoa. Joanes Urkixo.
- 35. Boligrafo. K. Santisteban.
- 36. BIMINI kultur ezezagun baten giltza. K. Barrentsoro.
- 38. Donostiako XV. jazaldia: Genuino sabor americano. X. Portu.
- 42. Gurutzegrama. L. Trask. Postaz etorriak.



# anaitasuna

AKUEIBIBIOTEKA  
EUSKAL  
KOORDINAKETA  
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA  
M. Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA  
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana,  
A. Eguzkitza, J. R. Etxebarria,  
M. Izagirre, J. Llerandi  
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

## ARABA

K. Mendia

## BIZKAIA

I. Alvarez, J.A. Macias, X. Gomez,  
T. Trifol, J. Zerrato

## GIPUZKOA

M.A. Landa, S. Oregi, A. Oiartzabal,  
I. Urtasun

## IPARRALDEA

M. Lanatua

## NAFARROA

B. Zabaleta, I. Zabaleta

## NAZIOARTEKOA

M. Aldana, M.J. Esteban

## IDAZLEAK

P. Agirrebaltzategi, I. Antiguedad, M. Aldana, I. Alvarez, J.L. Alvarez, J. Artzelus, J.M. Artzubiaga, B. Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzkitza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.R. Etxebarria, M.J. Esteban, J. Iturbe, M. Izagirre, M. Kaltzakorta, X. Kintana, M.A. Landa, J. Llerandi, J. Mendizabal, J. Orbezua, S. Oregi, M. Otazurialde, M. Pagola, X. Portugal, K. Santisteban, J. Sarrionaindia, T. Trifol, I. Urtasun, J.E. Urrutia.

## LANKIDEAK

K. Arko, J.J. Bakedano, X. Gomez, J. Idigoras, J.A. Macias, L. Trask, J. Zerrato.

## FOTOGRAFOAK

A. Alday, S. Barrena, Txaber, R. Zarra-beitia, J. Zerrato.

## MAKETAPENA

Gorka Urrutikoetxea, R. Zumalabe.

## KOMIKIAK

X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

## MARRAZKILARIAK

Ttua Taldea

## PUBLIZITATEA

### ETA

## HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

## ANAITASUNA

Zabalbide 68-entlo. BILBO 6  
Tfnoa: (9-4) 433 5808

## MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

lege G.D.L. Bi-1753-1967

PRINTED IN THE BASQUE COUNTRY



## SUEZIAR DEMOKRAZIA ETA BASERRITAR ARLOTEAK

Bilboko Jaiez gero eta gehiago luzatuko da jende asko. Intransjentzia politikoaz beteriko ekintza batez baliaturik, "Bilboko Jaien" nagusitasuna harrapatu du E.A.J.k eta beraiek ateratako eranskailu batetan diotenez "Bilbo gurea da eta gurea delako hauexek ditugu geure jaiak".

Garaikoetxearen irudi publikoa, Artzallusen xarma gozoa, beraiek eta bestek errepikatutako euskal tankera izanen duen "democracia nórdica"—ren eredu hau—, diputaziotan, euzkal lege biltzarrean eta udaltan erakusten duten bezala— guztiz fikziozko eta gezurrezkoa dela beldur gara, batzuren eta besteren ekintza eta portaera politikoak guztiz ezberdina baitira. Merkatal sistemaren mendebaleko demokrazia nordikoez liberealtasuna dute oinarri, E.A.J. aldiz, integrismo garbi garbia.

Ezker abertzalegoak eta eskuin espainolistak erasorik, UCD-ren barre, irri eta trufa, Autonomidun herrialdea (PNV), jarrera historiko eta arloreak hartzera beharturik dago askotxotan eta Sueziar demokrazia barik, Zuluena erresuma dela ematen du.

Bilboko jaiak eredu bat besterik ez dira. Euzkal lege biltzarreak Gernikan egin zuen lehen bileran, Makuak, Bizkaiko ezkutuari buruz esandako hitzak gogora datozkigu: "Euzkadi imini ba dogu, geurea dalako eta au Bizkaia dalako imini dogu eta ez deusat inñori bapez esan bear edo kontuak emon". Honelako hitzekin eta portaerekin demokrazia nordikoa ezarri nahi badutse, liberealtasunaz eta burjeseriaren xarma gozoaz franko dute oraindik ikaste. Bitartean herri buru gogor honetan baserritar arlo te batzu izaten segituko dute.

"EREILEAK"

[Artista, gogoetakari eta kultur-ordain euskaldunen elgarretaratza] deitu elkarteak "kultur aste" baten egiteko asmoa du, Irailaren 20 etik 28 a arte, MILAFRANGAN.

Aste horrek baluke:

- margolari, zizelkari, esku langile eta potreta ateratzaileen erakusketa.
- eskual liburu eta disken azoka.
- eskual berriketari guzien erakusketa (iru azken hoik aste guziaz.
- bizpahiru ikusgarri edo entzungarri (oraiko kantariak, musika, dantza, zinema eta "audio bisuel" delakoa)
- elkarhizketak (hala nola bat "Euskaratzaz euskaraz", bi alderdietako euskaltzain eta idazle handienekin eta bertze bat "gure kultura zertan den" (jakintzak, historia, edergintza, ikusgarriak, musika, zinema etab...)
- pertsonari omenaldizko egun oso bat
- hemengo "Jauzien eguna" Euskadik dauzkan soinuari herriko hobereenen batzuekilaran.
- Ereileen eta aste kulturalaren kudeatzaileen guzien elgar hobeki ezagutzeko eta deskantatzeko: "kandela-afari" eder bat, ondotikako bala batekin.

Aste hartan berean Lapurdiko jaun auzapezen biltzarra ukanen dugu.

Interesatuak: Monika Arosteguy, Peesenia - 64 100 - Villefrancue.

euskalarien nazioarteko jardunaldiak

JARDUNEN EGITARAUA

EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIK JARDUNEN EGITARAUA

1980.eko Abuztuaren 25etik 29ra Egunoro 10etatik ordu bata arte

25 Astelehena - Gernika

Luis VILLASANTE O.F.M. Euskaltzainburu Jaunaren Agurra.

I. TXOSTENA

Euskararen Fonologia sinkroniko eta diakronikoa André MARTINET Jn.ak (Ecole des Hautes Etudes, Columbia eta Sorbonneko Unibertsitateetan Irakasle ohia).

26 Asteartea - Leioa

II. TXOSTENA Euskararen Fonologia sinkroniko eta diakronikoa André MARTINET Jn.ak (Ecole des Hautes Etudes, Columbia eta Sorbonneko Unibertsitateetan Irakasle ohia).

27 Asteazkena - Leioa

III. TXOSTENA

Konparazioa: Lexiko-estatistika eta Tipologia

Antonio TOVAR Jn.ak (Euskaltzain ohrekoa. Espainiako Erret Akademiakoa. Salamancako Erretore. Tucumán, Urbana eta Tübingen Unibertsitateetan Linguistika Irakasle ohia).

IV. TXOSTENA

Euskal Sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea.

Terence H. WILBUR Jn.ak (Californiako UnibertsitateanIndoeuopar eta Euskal Linguistika Irakaslea).

28 Osteguna - Leioa

V. TXOSTENA Dialektologia

Jacques ALLIERES Jn.ak (Euskaltzain urgazlea. Tolosako Unibertsitatean Linguistika Irakaslea).

VI. TXOSTENA

Aditzaren Morfologia

Robert L. TRASK Jn.ak (Liverpooloko Unibertsitatean Linguistika Irakaslea).

29 Ostiralea - Leioa

VII. TXOSTENA

Iker premiak aurrera begira

Koldo MITXELENA Jn.ak (Euskaltzaindikoa. Salamancako Unibertsitatean Indoerupar Katedratiko ohia. Gasteizko Filosofi-Letren Fakultatean Indoeuopar eta Euskal Linguistika Irakaslea).

OHARRAK

- Agerpengileen eta berauen lanen lerrokada osoa laster zabalduko da.
- Jardunaldiak Gernikako Juntetxean hasiko dira eta Leioan, Unibertsitate campussean jarraituko.
- Eginkizun akademiko guztietan aldi bereko itzulpena egingo da.
- Agerpenak Uztailaren 31 baino lehen eskuratu beharko ditu Euskaltzaindiak.

KILOMETROAK-80

URRIAREN 5ean- TOLOSAN

1. ZER DEN

Azkeneko urteetan Ordizian, Zubietan eta Lololan egin zen bezala, aurten ere KILOMETROAK-80 ospatuko dugu, TOLOSAN, Urriaren 5 ean, hain zuzen. Hala erabaki zuen Gipuzkoako Ikastolen Federazioak.

Hortarako aukeratu den zirkuitoak, sei kilometro ditu luzean, eta bi parte bereziak. Bat nekaza-

ritza edo lurgintzako bideetatik dihoana, eta bestea, uri barneko etxe lantegi eta kale asfaltatutatik pasatzen dena. Bata eta bestea -lurgintza eta industrigintza- Tolosako Herria, bedidanik izan den bezala.

Egun hortan, Urriaren 5ean, etorriko den jendea, zirkuitoan sartuko da; nahi dituen kilometroak ibili, eta bukatzeko berak aukeratutako prezioaz ordainduko ditu ibilitekilo kilometroak.

Noski, dena ez da bukatzen ibilketa eta ordainketarekin. Zirkuitoan zehar atsedean pozgarria artzeko non gelditurik izango du, ikuskizunek, musikalariek, dantzariak e.a. sortzen duten giro alaiagozozatuz.

2. ZERTARAKO DEN

Egun hau ikastolen jai-egun zoragarria bihurtu da, haur eta helduok parte hartzen dugularik, euskararenazko zaletasuna azalduaz eta euskararen zutabe sendoak diren ikastolak bultzatuz eta lagunduz.

Ikastolen diru premien berri eman beharrik ez dago, eta horrengatik aurten bilduko den dirua Tolosaldearentzat behar dugun ikastola berria eraikitzeko eta Gipuzkoako Federakuntzat izango da.

3. KOMISIOAK

Antolamendu hau prestatzeko sei komisio izendatu dira: Zirkuitoa, Ekonomikoa, Trabena, Ikusizunak, Aparta-lekuak, Propaganda eta Koordinazioa. Sei komisio koriek eta koordinaketa, orain del bi ilabete lanean ari dira, taldeka, bakoitza bere eginkizunak prestatzen. Eta hona hemen antolamenduaren xehetasun nabariarenak:

3.1 Zirkuitoa:

Esan dugunez sei kilometroko luzera du. Bi zubi eraiki behar ditugu: bat, Araxes ibai gainean eta bestea, Nafarroako karreteran. Zirkuitoak lau sarrera eta irteera izango ditu, jendearen etorrera nondik den, handik hasteko: Nafarroatik, Beterritik, Goierriatik eta Berastegi aldetik, lau sarreak, hauek dira: Amaro, Berazubi, Ikastola eta Zumardi Haundia.

3.2 Trabena:

Zirkuitoan zehar zazpi trabenak ipiniko dira eta edariak ez ezik, janaria ere salduko da: salda, lukainka, haragi egosia, tortillak, ogi-tartekoak, eta oilaskoak. Beraz, ibilkariak janaririk gabe etor daitezke.

3.3. Ikuskizunak:

Ikuskizunak zirkuitoan zehar antolatuko dira, eta trabenak dauden lekuetan bereziki.

Egun horretarako etorriko diren taldeak hauek dira: hiru txaranga, dantzariak, txikijulariak, bertsolariak, txistulariak, toka lehiaketa, harri jasotzaileak, esku-lagintzan arituko direnak, haizkolariak, haurren-jaialdia, argiazki-rallya, sokatira, e.a.

Eta beste urteetan egin ez dena, aurten KILOMETROAK-80ren bezperan kantaldi bat antolatuko da, bertsolari eta komikok parte hartzen dutelarik.

3.6. Ekonomikoa:

Honen eginbeharra nahiko garbia da: ahalik eta diru gehiena atera eta gutxienean ordaindu. Horretarako lantegi, diruetxe, udal eta era guztietako erakunde eta pertsonetara jotzen ari dira, diru eske.

4. KILOMETROAK-80KO ZENBAIT DATU

Urriaren 5ean, Tolosa eta inguruko herrietako mila pertsona ari tuko dira lanean.

Loiolara joan zen 40.000 pertsonako kopurua, Tolosara etorriko dela pentsatzen dugu.

Antolamenduaren presopuetoa bost milioikoa da, janariak eta edariak aparte.

Egun hortan, ikuskizunetan parte hartzera etorriko direnei, bederatzirehun bazkari dohan emango zaizkie, Tolosako Elkar-teek prestatuturik.

Erreko diren oilasko 2.000 izango dira, 4.000 arraultz, 8.000 ogi eta 8.000 litro ardo eta sagardo saltzeko asmotan gaude.

Hemen jarri ditugun gauzetatik aparte, beste lan hauek ere bete-ko dira: komonak zirkuitoan zehar, anbulantziak, berebilentzako gruak eta mekanikoak, megafoni eta komunikatzeko zerbitzuak, bi haurtzaindegi, garbiketa-zerbitzua e.a. luze bat.

5. IKASTOLA BERRIA

Ikastola berria, Usabaleko terrenan eraikiko da, orain Ikastola berak gela berriak dituen terrenotan hain zuzen, KILOMETROAK-80ko zentroa izango-den zelaian.

24 gelakoa izango da eta Jorge Oteizak, Nestor Basterretxeak eta Armando Rocak, parte hartu dute aurreproiektuan. Honen maketa Udaletxean aurkeztua izan zen joan den Ekainean.

Etxe askotako eskola izango da, eta ugaritasun horrek nolabaiteko mugimendu harrigarria ematen dio proiektu osoari.

6. HARREMANAK

Kamisetak, poltsak, pegatinak, biserak, kartelak edo beste edozein gauza nahi duenak, dei telefono hontara:

IKASTOLA LASKORAIN 67.09.47.

KILOMETROAK-80 ko diru biltzeko kontuak hauek dira:

Lankide Aurrezki Kutxa (C.L.P.) 28.0.02391/5

Donostiako Aurrezki Kutxa (C.A.M.) 0/091908.4

Aurrezki Kutxa Probintziala (C.A.P.) 26.64.26.-6/81

TOLOSAN, 1980ko Uztailaren 24ean

# Zeruko Zeruko Zeruko

## ZERGATIK UZTEN DUGU ZERUKO ARGIA

### GERTAERA BATZUK:

- Duela urte batzuk, lehengo Zeruko Argia eta oraingo Zeruko Argia berdinak ez zirela konturatu ginan. Ta barrengo mamia ezin zutela erlijiosoak izenpetu.

- Urtetik urtera praile ta apaiz gutxi-gok idazten zuten Zeruko Argian. Gai erlijiosoak ere gutxitzen joan dira.

Egia da baita ere, praile gazte artean begi onakin ikusten dala aldizkariaren aldaketa. Behar ba-da, honeingatik ez

**Baina Zeruko Argia gero eta erradikalago bihurtzen joan da. Eta bortxaz, —Meinhof taldeaz— homosexualitateaz eta lesbianismoaz, edo feminismoaz, eta abar; honelako gaiak idazketak argitaratu dituzten bakoitzean, ikaragarritzko protesta pila egin ditu jendeak aldizkariari aurka. Ta gauzak pixka bat konpondu nahian, praile-komisioa ere izendatua izan zan.**

dira neurri zorrotzagoak artu gure aldizkariaren aurka.

- Baina Zeruko Argia gero eta erradikalago bihurtzen joan da. Eta bortxaz, —Meinhof taldeaz— homosexualitateaz eta lesbianismoaz, edo feminismoaz, eta abar; honelako gaiak idazketak argitaratu dituzten bakoitzean, ikaragarritzko protesta pila egin ditu jendeak aldizkariaren aurka. Ta gauzak pixka bat konpondu nahian, praile-komisioa ere izendatua izan zan.

- Gauzak konpontzea etzan ordea erraza. Idazle-taldea oso batuagoen, eta zer nahi zuten ere ondo zekitelat. Indarrez aldizkariaren ideologia aldatzea behartuko ba-genituzke, ziur geunden euskal herriak aldiz hau galduko zuela. Eta lehenengo urteetako aldizkariaren bihurtzea berriz posible ez zala ikusten genuen.

Erabaki bat artu behar zan: edo kaputxinoak artzen genun berriz aldizkaria oso osoki gure eskutan, edo ta bestela norbaiten eskuetan utzibeharra zegoen.

- Zer egin? Betirako Zeruko Argia

desegindu? Noren eskutan utzi bestela?

- Desegindu? ¡Ezta inolaz ere! Nola edo ala, bainan aldizkaria mantendu egin behar zan. Euskal herrian euskal aldizkariak gero eta gehiago behar dira. ¡Zeruko Argiak aurrera jarraitu behar du!

- Baina NOREN eskutan utzi? Gotzaitegiari eskeini? Beste erlijioso talde bateri utzi? Erlijioso danen artean aldizkaria mantendu, Anaitasuna, Goiz Argi ta Zeruko Argia, danak bat eginik?

Honelakoak ez genitun bidezkoak ikusten.

- **Donostiako** gotzaiarengana joan ginan. Ta ezetz esan ziguten: dirudienez, Donostiko elizak ez dauka gaur egun aldizkaria aurrera ateratzeko aukerarik.

- Ta zergatik aldizkariaren ideologia ez aldatu? Hau ere ez litzake irtenbide txarra izango! Kaputxinoen artean, ordea, ez degu hontarako prestaturik dagoen jenderik.

- Orain bertan Zeruko Argia daraman taldea prest dago hasitako bide berritik aurrera jarraitzeko. Ez du inolaz ere atzera jo nahi.

**Eta alderdi politikoeri zergatik ez eskeini? Hau bai ez gendukela nahi. Zeruko Argia euskal herria osoki altxatzeko zerbitu behar du, eta ez alderdi bateko ideiak zabaltzeko.**

Eta zergatik ez utzi "integrista talde" bateri? Hauekin, ditugun **diru-oztopoak** konponduko genituzke behintzat. Baina ez; ezin hauek egin dizkiguten eskaintzat ontzat artu. Beren eskutan uztea eta Zeruko Argia hiltzea, dana bat izango bai-litzake.

- Eta alderdi politikoeri zergatik ez

eskeini? Hau bai ez gendukela nahi. Zeruko Argia euskal herria osoki altxatzeko zerbitu behar du, eta ez alderdi bateko ideiak zabaltzeko.

### ORAIN ZERUKO ARGIA DARAMAN TALDEA JABE

Hau izan da bidezkoena iruditu zaigun erabakia. Orain arte gogor lana egin dute. Ziur gaude Euskal Herriko gorabeherak barru barrutik sentitzen dituztela.

- Diru kontuan ere alkar-konpoketa bat egin degu. Dirurik ez daukatela jakifiaz, praileak aldizkariaren emaitza egin diegu, hori bai, baldintza batzuk jarriaz.

### ZERGATIK EZIN GENUEN ALDIZKARIA ONARTU PRAILE BEZALA

- erlijioso geranez, elizaren dotrina onartzen degu. Ta Zeruko Argian elizako moralan aurkako dotrinak argitaratzen dira batzutan, ordea, sexualitateaz adibidez...

- politika mailan berriz, badakigu etika aldetik gauz asko eztabaida garriak dirala. Hala ta guztiz, Zeruko Argian egintza eta gertaera asko ematen zaizkion intepretakerakin, ta dotrinaketa bat betetzen ari diran pentsatzen degu....

### KAPUTXINOEN ARDURAKETA

- egia esan, erabatekoa: kaitu mailan, erlijioa mailan eta ebanjelizazio mailan. Kaputxinoak ezin degu aldizkaria desegindu; ezin degu, inolaz ere

Zeruko Argia "hilobiratu". Kaputxinoak bizirik nahi degu gure artean sortu izan dan aldizkaria. Kaputxinoak euskal kulturaren alde ikusi nahi degu gure izan dan Zeruko Argia. Kaputxinoak euskal herriaren zenbitzurako ipar eta hego euskal zerbitzurako zirik nahi degu Zeruko Argia.

# ABGIA ARGIA

## JABETZA ALDAKETA

"Legez kaputxinoena izaten jarraitu arren, urteak dira ZERUKO ARGIAK bere bidea daramala, bai kontenido aldetik eta baita aldizkariaren funtzionamendu guztian ere, ekonomikoa barne. Izan ere, 1963an ireki eta gaur arte etenik izan ez duen etapa honetan, hasiera hasieratik hartu du parte kaputxinoekin zerikusirik ez zuen zenbait jendeak. Pixkanaka haien influentzia gutxituz joan da, ZERUKO ARGIAren ekipoa, ia osorik, kanpoko jendeak osatu arte, hauek eraman dutelarik bere bain aldizkariaren martxa.

Eskertzekoa izan da fraile hauek erakutsi duten eskuzabaltasuna, nolabait beraien aldizkaria "galduz", euskal kulturari, hain urria den euskal prentsari, ate bat ireki bait diote urteetan zahar. Ahaztu ezinezkoa da ZERUKO ARGIAri franquismoaren urte haietan kaputxinoen babesean egoteak egin zion mesedea, gainerantzean ez litzateke harritzekoa izango aspaldian itxia izatea.

Gaur egun ZERUKO ARGIAK, lehen esan bezala, bere bidea darama. Ez dago, itxuraz behintzat, aurreko urteetako lege babesaren beharrik. Hau hazia da, bakarrik ibiltzeko gai. Horregatik, bertan lan egiten dugunoi, ez zaigu batere harritzekoa gertatu kaputxinoek beraien eskutik utzi nahi izatea, eta gure aldetik orain arte bezala jarraitzeko oztoporik ez baldin bazegoen ere, ulertu dugu kaputxinoen jarraera...

Zergatik hartu gure eskutan ZERUKO ARGIA? Ez da karga makala gaur egun euskara hutsezko aldizkari baten jabe egitea, arazo ekonomikoa ezinbestez larri larria izanik —eta hau ez da ZERUKO ARGIA bakarren problema, euskarazko prentsa guztiarena baizik—. Izan ere, gure esperientziak erakutsi di-



gunez, ezinezkoa da euskarazko aldizkari bat bere diru-iturri hutsez mantetzea. Euskal prentsari eusteko botere publikoek lagundu beharko dute, bai bere gain hartuz ala subentzioen bidez, hura berez ibili ahal izango den arte. Baina ez dugu ikusten alde horretatik oraindik pausorik eman denik, eta ezta berehala emateko itxurarik ere. Bestalde, inizatiba pribatuak ere ez du jotzen euskarazko aldizkariak sortzera, gehienez ere "elebidun" deituak jarritz martxan. Beraz, euskarazko prentsan hutsunerik gerta ez dadin, saiatuko gara aurrera jarraitzen...

Babetza aldaketa honek dakargun arazorik latzena zera da, orain gauden lokalak Irailaren 30erako utzi beharrean aurkitzen garela, kaputxinoek baldintza hori jarri bait zuten aldizkaria gure eskutan uzterakoan. Baita duela urte batzutatik zegoen zorra ere, 600.000 inguru pezetakoa, ordaintzeko baldintza ere. Esan beharra dago urteak daramatzala ZERUKO ARGIAk ekonomi aldetik autonomoki funtzionatuz. Dena dela, eta batzuk sosik kobratu gabe eta besteak soldata motzekin ibili arren, aldizkaria ezin autofinantzatu. Beraz, ekonomi aldetik suertatzen zaigu borrokarik latzena. Hori gaintitzen ahalegintzeko alde batetik kanporako lanak egitera behar tuak aurkitu gara. ZERUKO ARGIAko ekipoa prest dago kazetaritza eta grafikagintzaren arloekin zerikusirik duen edozer lan egiteko, hala nola aldizkari, kartel, pegatina eta barren diseinuak, euskaratze lanak, prentsako kolaborazioak etabar.

Bestalde, dirua biltzeko kanpaina bat hasi dugu: hogeituroko bonoak atera ditugu, eta Euskal Herri osoan zabalduz, Euskal Herrian Euskaraz elkartearen, LA VOZ eta UNIDADeko langilean eta beste zenbait jenderen laguntzaz, momentu honetan ezinbestezkoa dugun diru apurra jaso nahi genuke. Badakigu ez dela oso bidezkoa jendeari behin eta berriz eta handik eta hemendik dirua ateratzen ihardutea. Guri behintzat ez zaigu asko gustatzen hori. Baina benetan diogu ez dugula hori egin beste erremediorik, botere publikoek egin behar hau beren eskutan hartzen ez duten bitartean behintzat....

Oraindik badugu esperantzarik. Hain beharrezkoa dugun laguntza lortu eta euskarazko prentsak jarraituko du aurrera.

ZERUKO ARGIAko taldea

# AGURAIN ETA

**Agurain aintzin aintzineko hiri arabarra dugu, erromatarren garaian jadanik ezaguna. Agurain, bere tontorretik inguruko lurraldea eta erregebi-  
dea nagusitzen dituen, Arabako ekialdeko lautadaren hiriburua izan da betidanik.**

Gaur egun, Agurainek, bere irudia aldatu du, ikuspegi guztietatik aldatu ere: hirigintza, bizimoduaz, demografi-  
az, eta harreman sozio-ekonomikoak eta politikoak berri egin dira. Gerla aurrean, hiri-irudia ez zen XII garren mendekoaz oso ezberdina, nekazal ekonomia arrunta nagusi eta industri-  
gintza artesanala. Politika mailan, E.A.J. alderdirik azkarrena zen aise eta Arabako herritarrean, Agurain, aber-  
tzaleen artean, zalantzarik gabe. Gaur berriz, muino zaharren ondoan, hauzo berriak sortu dira. Hauzo horietara etorkin asko azaldu da, herriko populuaren ehuneko hogeta hamar-  
ra heldu arte, hain zuzen. Udaletxearen oraingo konposaketa hainakoe-  
k osatzen dute: lau zinegotzi independiente, haien artean alkatesa (H.B.ak lagundurik), EAJ.ko hiru, UCD.ko bi eta LKI.ko beste bi.

Udaletxe honetako idazkariaren goiti-behitiak ekarri nahi ukan ditugu Anaitasunaren horrialdeetara.

**Duela hiru urtez gero, mehatxuak zirela eta ez zirela, Udaletxeko sekretarioak arinki anka egin zuen. Ordudanik hona, herriko administralgoak jaun garrantzitsu hori gabe funtzionatu du, eta ondo funtzionatu ere. Baina espainol estatuak esku sartu nahi izan du sekretario berri bat izendatzen.**

**Gai honi buruz, Aguraingo alkatesarekin, Maria Luisa Mur-**

**giondoreki, hizketan ari izan gara.**

**A.- ANAITASUNA.-** Noiz jakin zenuen Madrilek idazkaritzarako urli berri bat bidaltzen zizula?

**M.L. Murgiondo.-** Joan deneko apirilean "Administración local" delakoaren agiri bat jaso genuen, Agurainera idazkari etorri nahi zutenen lau izenen artean bat aukeratzeko esanez. Lau horien artean ba zen, nafar-  
tarra hain zuzen ere, euskaraz zekienik.

**A.- Orduan, euskaraz zekien aukerarik ba zenuen, ezta?**

**M.L.-** Bai, nik euskaraz zekiena eskatu nuen eta ez hori bakarrik, edozein modutan ere, honera etorri lukeena, euskalduna izan lehin ere adierazi nuen.

**A.- Zer erantzun zuen Madrilek?**

**M.L.-** Madril bere legalidadeari jarraiki zitzaion, hau da, suertatu zitzaiona igorri zigan, gure eskabidea batera kontutan hartu gabe.

**A.- Konkretuki, zergatik ukatu zenuen bidaldu berria?**

**M.L.-** Euskaraz ez zekiela izan zen arrazoi bakarra, pentsa, nik mutil hura, ezertaz ezagutzen ez nuenez, ez nuen beste arrazoirik ukatzeko.

**A.- Euskaraz bestalde, zer eskatuko zenuke lanpostu horretarako?**

**M.L.-** Ba herriko problemak askatzeko gai izan dadin, bere jakinduria herriaren onerako eman dezan, ez nioke besterik ezer eskatuko.

Dagoen legedia, nire gustukoa ez delarik eta idazkariak bete behar duenez, ezin aldatu duenez, kasu bakoitzean herrirako aprobetxagarri bihurtuz, horretan frogatu beharko luke jakintasuna.

**A.- Edonola ere, Estatuko administralgoaren errealitatea onartzen al duzu?**

**M.L.-** Ez dut batera onartzen, baina, ez dakit, ni ez naiz politikazalea... batzutan ez dakit nola jokatu behar den, ez onartzeko esan nahi dut... Begira, estatutua hor non-bait dabil, gizontxo zuhur eta abertzale batzuk egundoko gauza ekarri omen dituzte, baina hemen dena Estatua da, horrek bai, gogorki jotzen gaitu alde guztietatik.

**A.- Hau guztia zure iritzia da, nola jokatu zuten idazkariaren arazo honi buruz gainerako zinegotziek?**

**M.L.-** Orokorki denak ados zeuden. Madril, gure idazkaritzarako, euskalduna eskatu genuenean, batera etorri ginen guztiok. Baina gero, idazkariaren arazoa eztabaidatzeko bereziki egin genuen bilera batetan, bidaldu berria zen sekretario erdaldu-  
na presente zegoela, EAJ-koak kontra agertu ziren, hizkeragatik baztertzeko diskriminazioa zela esaka. Dena den, nik neuk erabaki bear nuen eta horregatik arazoa lehengoetan geratu zen. Ez dakit nola da zergatutako zatekeen EAJ-ko ezein erabaki behar izan balu, zeren hor azaldu zuten jarrera ez baitakit haien eritzi pertsonala zen edo lekuko alderdikeria ote zen.

**A.- M. Luisa, nola arrazoi natzen duzu, euskara desagertu den Agurain herri-  
ko herrian, egin duzun beharkuntza hori?**

**M.L.-** Agurainen gaur euskaldun gutxi da, egia, baina horrek ez du ezer ikustekorik. Euskadin bizi garenontzat euskaraz jakitea behar eta eskubide da era berean. Kontrari-  
korik esatera, erdalduen diskriminazioa dela eta gisa horretako argudioak likidatzen zionistak dira, bestalde, berreuskalduntze-  
ak Administralgotik hasi behar du, ez hitz fi-



# IDAZKARIA

luragarrietatik edo eta agerietan urrezko hizkietan esandakoagatik.

**A.- Nola geratu da momentuz arazoa?**

M.L.- Asko pentsatu eta gero, igorriko mutilaren egoera larria kontutan hartuz, hari idazkari-plaza ematea erabaki genuen, espainol administralgoan irabaziak zituen eskubideak ez galtzekotan, baina berehala

"excedencia" eskatuko lukeela agindu genion. Gaur ere, lehen bezala, Udaletxeak idazkari gaberik ibiltzen du.


**A.- Azkenik, zer-nolako irizpideak jaso dituzu Euskadiko gure politikarien goi mailatan?**

M.L.- Ba dirudienez, inork ez du fitxik egin. Ez administrazioarako kontseilaritza eta ez

da Diputazioa re mugitu dira. Gobernu Zibilak bai, sekretarioa onartzea agindu zidan, baina geroztik ez nau behinola presionatu. Pixkat arraroa da, baina oraingoz agintariek ez dute jaramon handirik egin.

Eskerrik asko, María Luisa.

Jon Iruretagoiena



# EUSKAL HERRITIK ISRAELERA

Euskaltzaindiaren Oinarrizko Euskararen Batzordeak antolatutik, 50 lagunek kultur ibilaldia egin dute Israelera. Taldeko gehienak irakasleak izan dira eta hauekin batera zenbait Euskaltzaindiko. Beren egitekoa Hebreo hizkuntza eta kultur irakaskintzaren herriak ezagutu eta jasotzea izan da. Ia baldurik zen hebraierza nola berpiztu den eta honetarako Ulpan deritzaten eskolak izan duten eragina estudiatu da.

Ia egunero izan dituzte hitzaldiak, irakasle, akademilari eta kultur ministeritzako ordekariz hornituak. Hauek aurkeztu zizkieten hizkuntza berpizetako erabili dituzten helburuak.

Zenbait kibutz bisitatu dute. Elkar lanean egiten duten nekazaritzaz aparte, industria berezia eta bertako eskolen berriak jaso dituzte.

Baita ere Biblian aipatzen diren herri zaharrak eta hauek Israelengan duten balio berezia ikusi dute. Herri baten erroak, bere historia eta erlijio emaitzak lotzen baitu judu komunitatearen gogoia.


Baina bereziki Israel Herriak hizkuntza du bere kulturaren oinarri. Askoren ustez, ia hila zegoen hizkuntza izan baita herri honek egin duen mirakulurik handiena; berentzat ordea, plangintza baten barnean, anitz urtetan, ekin eta jarraiz, lortu dena da. Gaur egun, hebraiera da bere hizkuntza nagusia bizitzaren arlo guztietarako, lehen mailako eskolatik Unibertsitateeraino; era berean komunikabideetarako. Oroi, duela bi urte, biztanle proportzioz, liburu argitalpenetan, munduan bigarren jarri zirela. Horrez gainera, antzerki taldeak eta zinegileak bere geografia guztian hedatuak aurkitzen dira.

Israelek zazpi Unibertsitate ditu; guztietan hebraieraz irakasten dela. 1912an Haifako Unibertsitate barruan, hezkuntza Hebraieraz egitearen alde, lehen adiz ezagutu zen irakasleen greba. Hala ere, zenbait teknika eta zientzi gaietan ingelesa ere erabiltzen da, batez ere bibliografia mailan.

Ibilaldi taldeak Israeldarren Elkargo horiekin harremanetan jarraitzeko asmoa du. Honenbestez, hasteko bederen, bi beka jartzen dira euskaldun irakasleek hango esperientziak ezagutzeko ikastaro bat egin dezaten.

Bidaia honetan partaide izan diren eritiz. Hebraieraren esperientzia euskal hizkuntza eta kultura salbatzeko adierazpen egokia da.





Nik orain hogeita hamaika urte dauzkat. Orain urte batzu nork esan gaur zein egoera ahulean aurkitu behar genuen. Ez genuen, ez, orain hamar hamabi urte gaurko Euskal Herria amesten...

Herriaren borroka dela ta, saiatu eta saiatzan gara gartzelatuak etxeratzen. Saiatu eta saiatzan gara atzerrira ihes eginak etxera daitezten. Baina sortu zaigu gaitz berri bat azken urteotan. Zer esan honelako berri bat irakurtzean egunkarietan: 3.000 gazte (gutxi gora bera) izena emanak dira atzerrian lane-giteko...

Emigrazioko bulegoetako fitxetan geroz eta euskal deitura gehiago agertzen da egunetik egunera. Eta hau zer da? Ez da atzerriratuak izateko beste bide bat?

Zenbaiti gutxi axola arazo hau bere gurasoek edo familiak laguntzen dion artean. Behar bada ez da lanbila arduratu ere egingo, denak aditzera ematen dutenez, hain zaila baita lanpostu bat eskuratzea. Beste batzu ogiaren bila, noranahi joateko prest egongo dira, behartuak aurkitzen dira, gurasoak edo emaztea edo lagunak utzi eta urte batzuetarako Afrika, Venezuela edo nora-baitera joatera.

Duela aste pare bat, gazte batzuekin elkarrizketa luzetxo bat izateko aukera izan nuen. Eta elkarrizketa hartan oso galdera garrantzak egin ziren: guretzat etorkizunjak usaindu ere egiten ez badugu, zertarako eta zergatik arduratuko gara Euskal Herriaren etorkizunaz? Zertarako borroka egin guk ez badugu irabazirik jasoko? Zertarako ikasi gero dena ahazteko lanik ez edukitzean? He-

men sortuak gara, bai, baina nolako lotura dugu guk ogibiderik gabe uzten gaituen gizarte batekin? Etab., etab.,


Nik neronek ez dakit nola erantzun, ez baita etorkizuna garbi ikusten. Hala ere faszismoaren azpian borrokatzen genuenean amestutako euskal gizarte hura utopia hutsa izango denik ez dut sinestu nahi. Ez dugu inola ere etsi behar. Aurrerako bidea nola landu, hortan dago kokka. Euskaldunok arrazoi bat gehiago dugu erresistentzi mugimendu gogor bati indar emateko, emigra dezatela Garaikoetxeak eta Suarezek eta jauntxoek... guk Euzkadin bizi nahi dugu, eta hemendik ez gaitu inork mugituko.

Ezin inolaz ere onartu Euskal Herria gazterik gabe uztea. Droga eta mila bide ilun darabilte gure gazteekin. Laneza da biderik okerreana. Euskal Herria guregana dezagun saiatu behar dugu, eta lan honetara gasteak sailean bildu, atzoko eta gaurko eta biharko gazteek eduki dezaten beren herrian, Euskal Herria.

Hirugarren bideari eman behar diogula indarra uste dut. Erresistentzi mugimendu gogor bat jaso ez dezan Euskal Herriatik inork emigratu. Lanezaren numeroak aztertzea jadanik alferrikakoa dugu. Hoiiek geroz eta haundiagoak dira. Gaur guri zer gutxiarako balio digute. Eskandalizatzeko egunak pasa dira. Euskaldunok gaur daramagun borroka banderan, beste guztiekin batera, erreibindikapen hau idatzi behar dugu: EUSKALDUNOK, EUSKAL HERRIAN BIZI NAHI DUGU.

Iruñea, JBJ

# EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK



Euskaldunok beste ezerk ez gaitu bereizten hizkuntzak haina. Munduko mapa orokorretan, badirudi, Euskal Herriak hizkuntz-etniakoan soilik duela bere leku berezia.

Euskara aintzinatik aipatzen zen Europako hizkuntzarik zaharrenetakotzat, eta ospe honek ekarri zituen hizkuntzalari arrotzak gure herrira. Wilhem von Humboldt izan zen hoietatik aipagarrienetako bat, zeren gizon ospetsu hau euskararekin zaletu zenetik munduko hizkuntzalari famatuenak arduratu dira euskararen sustraiz eta jatorriz. Geroztik, berrehun urteren buruan hamaika ikerketa egin da; baina, hala ere, oraindik inkognita berak iharraitzen du eta herririk aurreratuenetako hizkuntzalari jakituenak arduratzen dira euskarari buruz.

Azken urte hauetan edonondiko linguistak etortzen dira Euskal Herriara. Gehienek Euskaltzaindira jo izan dute, berri bila edo harreman bila. Ohartuak ginen horietako asko ez zirela elkarren artean ezagutzen, naiz eta inoiz ikerketa berdintsuetan aritu. Eta hortik piztu zen orain aurrera daroagun asmoa.

Euskaltzaindiko iker sail buru den Luis Mitxelank mugatu dizkigu Jardunaldi hauetako gai nagusiak. Eta dei diegu munduan zehar saka-

banaturik dauden euskalariei. Beren erantzuna oso ona izan da. 10 naziotatik hogetakak linguista etorriko dira.

Honako programa honen barnean arituko dira: Euskaltzainburuaren agurraren ondotik, Jean Haritschelhar-en Euskarari buruzko ikerketak gaur egunean zer egoeratan dauden adieraziko du; André Martinet, Fonologia sinkroniko eta diakronikoaz mintzatuko da; Antonio Tovar, Konparaketaz, lexiko-estadistika eta tipologiaz; Terence H. Wilbur, Euskal sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea; Jacques Allières, Dialektologiaz; Robert L. Trask, Morfologiaz; eta, azkenik, L. Mitxelenak, Iker premiak aurrera begira nondik eta nola beharko direnaz.

Gainerako euskalariak eta euskaltzainek gai horien inguruan zenbait agerpen emango dituzte. Hauetarik batzorde batek aukeratuko ditu hau bertan irakurriko direnak. Lan guziosiok bilduma batean argitaratuko dira.

Ekintza honekin, lehen lehenik, euskalariok pertsonalki elkar ezagutzeko aukera izango dute.

Hemendik aurrerantzean, bakoitza non eta zertaz ari den jakingo dugu. Eta Euskaltzaindiak, bere egiteko-etarik arlo bat beteaz, ikerketak zuz-

pertuz, aurrerantzean guziekin harreman estuak izanen ditu.


Herri batean hizkuntza alderkikeri guzien gaintek dagoen zerbait da. Hizkuntzari behar duen itzala emanaz, Euskal Herrian bizi diren guzietatik eman nahi diegu gure hizkuntzaren garrantzia, ez dakitenei (mintzatzen ez direnei) ikasteko go-go sortaraziz, dakitenei gehiago erabiltzera bultzarariz. Ia gure hizkuntzari giro berri egokiago bat lortzen diogun.

Esan beharra dugu, asmo hau aurrera eramatea, ezinezkoa izango zela aurrez herriak berak lagundu ez baligu. "Bai Euskarari" kanpainaren ondorena bait da oraingo ekintza hau.

Jardunaldi horiei hasiera Gernikako Batzar Etxean emango zaie, ondoko egunetan Euskal Herriko Unibertsitatean (Leioan) iharraitzeko, helduden abuztuaren 25-etik 29ra bitartean.

Goizetan hitzaldiak eta arratsaldean ibilaldiak programatu dira, Euskal Herriaren geografia, kulturtegiak, arte leku, folklore, bertsolari, kanta zahar eta berri ezagutu dezaten, honela, beren ikerketetan, gure herriaren irudia lagungarri izan dezaten.

EUSKALTZAINDIA



euskalarien nazioarteko jardunaldiak  
bascologists' international meetings

encuentros internacionales de vascólogos  
rencontres internationaux de bascologues

GERNIKA-LEIOA 1980-VIII-25/29

# “INEXA”

Publikoaren aurrean, hiru emakume belaunikatzen dira: Maria de illarra, Maria de Garró eta Inexa de Gaxen. Beldurti daude. Atzean, taularen azken puntan, palestra baten gainean, batek militarra dirudi jazkeraz eta posturaz, besteak, berriz, politikoak... Bien aurpegiak begirada zorrotzaz osatuak daude. Beste pertsonaiak, apeza eta zigortzailea... Hondarrabiko hauzian aurkitzen gara:

**INEXA DE GAXEN. JAIOTZEZ LABURDIARRA NAUZUE, 20 URTETAN BIZI IZAN NAIZ IRUNKO HIRIAN ETA 7 URTE DARAMAZKIT HONDARRABIAN BIZITZEN... EZ DITUT ONARTZEN UME ZIRZIL HAUEN AKUSAZIOAK. BERAK OBEN EGITEN DUTE. EZ NAIZ INONGO AKELARREAN IZAN”...**

Oiartzungo INTXITXU antzerki taldeak, “Inexa...” obra eskaini zigun Donostiako San Telmo aretoan. Euskal “sorginek” XVI-XVII jasan behar dugun zapalketa salatzeke. Inexak, judizioari buelta eman eta bere salatzailerak juzkatuko ditu gaurko emakumearen burrukaren ispilu bat bihurtuz..

## ARTAZURIKETAK

Antzerki saio hau aratzeko, euskal tradizio ezagun batetan oinarritu da Intxitxu taldea: Artazuriketetan. “Antzeki mundutik aztertuaz, “artazuriketandoriorian” sortzen den giroa, gaur egungo antzerki zaleentzako izugarri interesantea dugu” -dio Eugenio Arozena, taldeko zuzendariak-” Gaur egun, antzeki unibertsalak dituen bi osagarri aberatsenetatik osatua baitago: Bertol Brecht-ek hain aipatutako “urrutiratzea”, eta beste aldetik, J.L. Morenok antzerki espontaneoari buruz esandakoa... Antzerki espontaneora jotzea nahi dutenek, oinarri ezin hobea dute tradizio honetan...”.

## TALDEKO KOLABORATZAILEAK

Intxitxu taldeak, hamar urte daromatza lanean euskal antzerkia aurrera eramateko nahian. “Deus izatetik izatera”, “Orria”, “Aralar” eta “Karlisdaren kronika” izan dira azken urteotan eskaini dizkiguten lanak. Oraingo “Inexa” honetan, guztiz aipagarria da izan duten kolaborazioa: Antton Valverderen musika, Idoia Estornesen eritzi historikoak eta Antton Haranbururen bertsoak. Arantza Urretabizkaiak eta anjel Markok burutu dute, berriz, obraren gidioia. /

M. Axun Landa



# UEUren BERT VIII. UEU bukaturik

Atseginez eta pozik idatzi behar, hango ekitaldietan parte hartu ondoren, eta horregatik —ustez behintzat— bertso alaietz nator, "Esne-satzailearen" doinua erabiliz.

Bestalde, bertsoak aukeratu ditut, udako oporretan lasaigarri modura ondo etor daitezkeela uste izan baitut. Denbora izango dugu ikasturtearen hasieran, aurtengo

saioaren balantzea egiteko, eta hurrengo artikulu batetarako utziko ditut datu estatistikoak eta beste. Gainera prentسابulegoaren lanari esker, egunkarietan eta komunikabideetan segitu ahal izan dituzue bertako zenbait gorabehera.

Horrela, ba, kanta ditzagun bertsook, horretarako umorerik baldin badugu, VIII. UEU honetan eginiko ekitaldi batzuren kronika izan nahi baitute:

Hogeigarren mendean laurogeigarrena, hau da Zoramena! Iruñean agertu da gure kemena; egintza eder horrek ba du bere izena, UEU siglen bidez ezagutzen dena: euskal kulturarentzat bizkortze-etzena.

Bertan bilduak gara bostehun bat lagun hainbeste ezagun; hango egintza batzu

aipatu ditzagun pazientzia baduzue kanta eta entzun; ez gara arituko gogor edo astun adieraztera goaz han zer egin dugun



# KRONIKA

# SOTAN

## dago. Gora IX. UEU!

Lanean egin dira  
hainbat ikastaro  
hogei ta gehiago  
tesi eta tesina  
agertuz oparo  
UEUk utzia du  
atzean haurtzaro  
are gogorrago:  
Oraindik lan gehiena  
egiteko dago!

Astronomiarentzat  
on da gauerdia,  
izanik argia;  
gauetz atera ginen  
jendetza erdia.  
Mendian ginen eta  
alboan ardia  
hotza zegoelako  
ez zen izerdia.  
Teleskopioz hartu  
genun hilargia

Hilargia ikusiz  
kalean izanda,  
ederra parranda!  
Heldu egin zitzairen  
izarrei txanda.  
"Begira zuzenean,  
«Ursa Major» han da!  
Iparra aurkitzen da  
zuzenkiro joanda"  
Berdin egin liteke  
lurrean etzanda

Interesgarri omen  
da Natur Zientzia  
landarez jantzia.  
Ikasle-irakasleek  
nahiko pazientzia.  
Txoriak entzuteko  
zaukaten antsia,  
Goizaldeko seiretan  
komententzia,

gauetz juerga baina  
garbi kontzientzia.

Bertsolariek ere  
ba dute odola  
ta ez edonola.  
Hantxe agertua zen  
Santutxuko eskola.  
Sei bertsolari gaztek  
apurtuz kaiola,  
erakutsirik argi  
geroa dagola.  
UEUn sartu zuten  
haiek beren gola

Bi egun pasatuta,  
ondo bagabiltza,  
bestelako hitza:  
Jon Azpillaga eta  
Xabier Amuritza.  
Bersoan sagardoak  
ba zedukan bitsa;  
bertsolariak dira  
euskaldun-haritzta:  
Horrelako egurrez  
gaizki dabil sitsa!

Kirolak ere beti  
beharrezko dira,  
gorputzen dirdira,  
honela hurbildurik  
gazteen habira  
Musean bota dugu  
hordago handira,  
eta krosean eman  
bizkor hiru bira;  
inor ere ez zaigu  
nekez erretira.

Neskak eta mutilak  
futboleak gogor,  
alai eta jator.  
Hala ere txapela  
guztiok ezin lor.

Ostikada galantak  
eman dituzte hor,  
hona arrazoia ta  
ez haserre inor:  
arratiarrak dira  
garaile derrigor.

Berriro zientziarekin  
dakargu berria,  
harriz herria:  
konputagailua da  
erabilgarria.  
Euskara ere ba daki,  
hau harrigarria!  
Tanketaren jokoa  
da jostagarria,  
bertan ken dezakezu  
joko-egarria

Eginak izan dira  
pilo bat ahalegin  
nekeetan berdin.  
Antolatzaileak bai  
langile eta fin!  
Horrelako askorik  
ez dago Euskadin,  
eskerrak ematean  
hartzen dut atsegin:  
guztion izenean,  
zorianak Martin!

Bukatzer a noa ta  
hona nire agurra  
hitzetan laburra.  
Gora UEU hortan  
landura den lurra!  
Gora hango jendea,  
langile zuhurra!  
Horrelako sutara  
pilatu egurra  
Urtu egin dezagun  
erdaren elurra.

T x e p e t x a

# ZER BERRI ISRAELEN,

Segur asko dakizuenez, Uztailaren lehenengo hamabostaldian Euskal Herriko 50 ikasle-irakaslek Israelerako bidaia batetan parte hartu genuen. Bidaia laburra izan zen denboran neurtuz, baina nahiko bete lane-tan.

Bidaiaren antolatzaile Euskaltzaindia zen, eta beraren helburu nagusia arlo soziolinguistikokoan kokaturik zegoen. Hain zuzen, hebraieraren birpizkunderako eraman den prozesuari buruzko datuak eta informazioa biltzera joan ginen, bide batez oraingo egoera linguistikoaren berri hartuz. Neurri handi batetan, helburu hori bete izan dela esan dezakegu. Horren lagungaritzat, turismo-egiterik aparte, bertan entzundako zazpi hitzaldi eta eginiko elkarrizketak, hango hizkuntz-irakasle, akademiko eta funtzionari batzuk emanak. Gauza interesgarriak entzun ditugula aitortu behar.

## ZENBAIT DATU HARRIGARRI HEBRAIERARI BURUZ

Euskararen aldeko burrukalari eta langile-

entzat interesgarri direlakoan, hona hemen hebraieraren birpizte-prozesuari buruzko zenbait datu.

Gutxi gorabehera, duela ehun urte (1880. inguruan) hasten da, hebraiera indartze eta erabiltzearen aldeko mugimendua. Honetaz ezin utz daiteke aipatu gabe, Ben Jehuda izeneko heroe nazionalaren izena, berau izan baitzen bai teorian eta bai praktikan, hebraiera hizkuntza moderno bihurtu nahi izan zuen lehena.

Dena den, jakin egin behar da hebraiera ez dela inoiz hilik egon, euskara baino egoera txarragoan egon bada ere (beharbada):

- Jemen aldean, hebraiera erabiltzen zuen tribu judu bat zegoen, ehun mila baino pertsona gehiagok osotua.

- Biblia beti hebraieraz idatzia izan da, eta hori mundu osoko juduen artean. Sinagogetako hizkuntza sakratua beti izan da hebraiera.

- Erljioa zela eta, diasporan ere irakasten

zen hebraiera, hizkuntza arrunt bezala ez bazen ere.

1912 urtean, Haifako Teknion izeneko Unibertsitatean, ikasleek greba gogorra egin zuten, bertako irakaskuntza osoa hebraieraz izan zedin. Ordurarte, alemanera zen prestijiozko hizkuntza. Ikasleek, ba, behartu egin zituzten irakasleak hebraiera ikastera eta erabiltzera. Aipagarria da, inolako botere estatalik ez zeukatela, baina hala ere, eskola juduetan hebraiera zen nagusi.

Kibutzen sorrera ere hor kokatu behar da, 1910. urtearen inguruan, eta horrek ere eragina izan zuen hebraieraren erabilkeran.

1948. urtean sortzen da Israeleko estatua. Garai hartan seirehun mila judu zeuden, guztiak hebraieradunak. Orain hiru miloi dira, gertaturiko inmigrazioa tartean dela.

Estatua lortu ondoren, beronen botere politikoa hebraieraren alde jarri dute. Eta bai ekonomikoa ere. Irakaskuntza osoa, 16





urte bere arte halabeharrezkoa eta dohainik da. Eta zer esanik ez, hizkuntza nagusia, hebraiera.

Inmigranteak hebraieratzeko, ulpan izeneko ikastegiak zabaltu dituzte Israelen zehar Bertan, modu intentsiboz, lauzpa-



bost hiletan oinarrizko hebraiera irakasten da.

Bestalde, telebista, irratia, egunkariak dena hebraierari laguntzeko pentsaturik daude.

Honela, ba, "miraria" egin dutela esan ote daiteke? Izen kontua alde batetara utziz, lan izugarria egin dutela eta medio indartsuak erabili dituztela aitortu behar. Horretan dute meritua.

#### ZENBAIT HUTSUNE

Hizkuntzari buruzko gauza harrigarriez gain, aipatu beharreko hutsuneak ere aurkitu ditugu, noski. Edozertara ere, bidaiaren denbora laburregia izan da, arazoetan gehiegi sakontzeko. Beraz eritzi laburrak izango dira:

Hasteko, Israel gerran dagoen herri bat dela esan behar dugu. Kontrolak nonnahi eta zenbait anekdota bitxi. Adibidez, soldatuak, metraileta eta guzti egiten dute auto-stop.

Niri dagokidanez, guztiz desegoki eta salatzen aurkitu dut, lurralde okupatueta erabiltzen duten politika, erabat expantionista dela uste baitut.

Politikoki, Israelekiko harremanak oso eztabaidagarri dira. Beren ikuspuntutik, normala deritzot, beren buruei propaganda

egitea, hots, sionismoaren aldekoa. Baina, noraino ez ote gara gu, konturatu gabe, horrelako arloan sartzen? Ba dakigu, jakin, hizkuntzaren arloan zerikasi franko dugula, baina arazo politiko hori hobeto aztertu behar litzatekeela uste dut.

#### ONDORIO MODURA

Bukatzeko, laburki esanez, nik neuk ondorio nagusi hau ateratu dut: Ez da itxaron behar botere politikoa —estatua, independentzia,...— lortu arte, hizkuntzaren arzoa ebazteko. Aldez aurretik, azpiegitura osoa prestatu behar da, gero botere politikoa azpiegitura horren finkatzeko eta indartzeko erabili beharko delarik.


Horrela egin zuten Israelen eta horrela egin beharko genuke —egiten ari gara?— Euskal Herrian ere. Eta hemengo azpiegitura aipatzean, hainbat erakunde datozkit burura: Ikastolak, UEU, Alfabetatze, Euskalduntze koordinakundea, euskarazko irrati eta telebista, euskarazko prentsa...

Burrutik linguistikoa luze da. Juduek hirurogeitamar urtetan ekin zioten gogor estatua hebraieraduna lortu arte. Guk zenbat beharko ote ditugu?....

Beraz, animoak har eta gogor burruka.

J.R. Etxebarria

AUZMENDI  
Sastre on baten izena.



Vergara, I.  
Donostiako estiloa.

# TOLOSALDEKO UDALAK EUSKAL GOBERNUARI EUSKAL PARLAMENTUARI

Interesgarri gerta liteke eta osokiro argitaratzen dugu Tolosako Udalak Euzkal Gobernuari bidalitako gutuna.

Tolosaldeko Udalak gure herrietako zenbait erakunden aldetik (Tolosalde Birreuskalduntzeko Elkartea, Ikastolak, Gaueskolak e. a.) Euskararen erabilpenari buruz, zenbait eskaera jaso dugu. Horien artean bat, nagusia, honako hau zen: Gure eskualdean euskararen iraupenerako ea zer plangintza daukagun agertzeko, alegia, edo eta plangintza antolatuz ez badugu arazo honetaz zer egiteko asmoa dugun epe baten barruan agertzeko eskatzen zitzaigun.

Arazo hau gure artean aztertu ondoren zera ikusten dugu: Horrelako Plangintza bat ez dagoela Udal batzuren eskutan, nahiz eta eskualde osoko Udalak izan. Aitzitik, Udalen eta Eskualde baten gainetik dagoen erakunde baten egitekoa dela. Une honetan ditugun erakundeak kontuatan hartuz gero, gure ustez EUSKAL GOBERNUA/EUSKAL PARLAMENTUA izan beharko luke Euskal herri alde autonomo osoari begira Plangintza hori burutu beharko lukeena. Hizkuntzaren arazoa ez delako udal lurralde batzuetara mugatzen denetarikoa, Euskal Herri osoko lurraldeak hartzen dituenetarikoa baizik. Bestalde, hartu behar diren neurriak, kontutan izanez gero, neurri horiek hartzea, Eskualde bateko Udalen eskuetan ez, baizik aginte zabalagoa dutenatan dagoelako. Eskualde bateko Udalek ez bait dute ahalmenik zenbait arlotan hartu behar diren neurriak hartzeko. Hala-nola Administralgoa, Irakaskuntza, Komunikabide eta Zerbitzu publikoetan. Halere, lehen aipaturiko taldeek zuzendu diguten eskariari benetan arazoizkoa eta egokia derizkiogu.

Izan ere, Euskal Herria bere Erakunde hornitzen hasia den une honetan garbi ageri da EUSKARABereskuratzeko prozesoa une berean abiatzen eta indartzen ez bada, berriz ere, gure hizkuntza atzera geldituko dela eta erabat galtzeko arriskua, lehenaz gainera, ahnditu egingo dela.

Gai honetan, jakintsu diren guztiek, aho batez aitortzen duten bezala, datozen urteak zerrikusi handia izango dute euskararen etorkizunerako, urte horietan jokatuko delako euskararentzat aposturik gogorrena. Hau da: edo eta euskara behin betirako Ofizial bilakatzeko bideetan abiatzen da, ez paperean edo dekretu mailan, baizik egunoroko bizitzako erabilpen mailan (nola Administralgoan, Irakaskuntzan, Komunikabideetan, Zerbitzu Publikoetan eta Erakunde guztietan, hala Kalean, Lantegian, Denda eta Tabernetan e.a.). Jedo eta une historiko honetan bazterreratua gelditzen da eta orduan bere egunak laburrak lirateke. Izan ere etxean edo familian besterik erabiltzen ez den hizkuntza, lehenxeago edo

geroxeago, hiltzera kondenatua dagoela jakina da.

Honek zera esan nahi du Euskararen erabilpena normalizatzea ezinbestekoa dela, alegia. Euskararen erabilpena normalizatzea iristeko berriz, beharrezkoa da, jakina denez baita ere, plangintza orokor bat burutzea.

EUSKALGOBERNUAK/EUSKAL PARLAMENTUAK beste alor batzutan nola Lurralde Antolakizun, Ingurugiro eta Hirigintzan, edo eta Hezkuntza, Osasun eta beste zenbait alorretan aurrez buruturiko asmoak eta Plangintzak aurrera ateratzeko asmoak agertu dituen bezala, Euskarari buruz ere normalizapenerako plangintza orokor bat edukitzea ezinbestekoa edo nahi eta nahiezkoa dela uste dugu.

Plangintza orokor bat esatean zer adierazi nahi dugu:

1.- Plangintza horretan kontutan harte behar direla, alde batetik, hizkuntza egoera ezberdinetako lurralde edo area linguistikoko guztiak, hala nola erabat erdaldunduak aurkitzen diren lurraldeak, ukipen area edo erdara nagusitzeko arriskuan aurkitzen direnak, area hiritartuak edo espezialak, eta area euskaldunak, lurralde bakoitzean zer egin erabakitzeke eta bakoitzari dagokion tratamendu egokiena emateko.

2.- Beste aldetik plangintza orokorra esaten adierazi nahi dugu baita ere hizkuntzaren hesparru sozial edo arlo guztiak hartu behar dituela. Hau da Administralgoa, Irakaskuntza, Komunikabideak, Zerbitzu Publikoak e.a. Behin betirako gure hizkuntza nazionala den euskara benetako hizkuntza ofiziala ere bilaka dadin, Euskal Herriko lurralde eta hesparru sozial edo bizitzako arlo guztietan.

3.- Plangintza orokorra esaterakoan adierazi nahi dugu azkenik: Ez dugula onartzen, nahikoa ez dela uste dugulako helburu edo xede orokor batzuk markatzea edo, printzipio nagusi batzuk proklamatzeko eta hortan gelditzea. Aitzitik, beharrezko jotzen dugula, helburuak markatzeaz gainera, horiek lortzeko erabili behar diren bitarteko edo medioak definitzea eta bitarteko horiek noiz eta nola erabiliko diren garbi epekatzea eta egutegi edo kalendario bat egitea. Hau da programaketa zehatz batetan mamitua eta ongi lotua agertuko duen plangintza bat burutzea. Hori guzia zenbat kostatuko den eta horretarako zer nolako finantza bideak erabiliko diren ere garbi azaldu beharko luke, besteak beste, plangintza orokor horren barnean.

Era honetan bakarrik posible izango bait da euskararen erabilpen normalizapeneraren bideak urratzen hastea eta gure hizkuntzaren errehabilitazio prozesoa in-

dartu eta sendotzea.

Hitz gutxitan bildue Tolosaldeko Udalak EUSKAL GOBERNUA/EUSKAL PARLAMENTUARI zuzentzen diogun eskaera hauxe da:

- Ager dezala, ahal den eperik laburrenean, euskararen normalizapenerako eginga duen Plangintza.

- Gisa hontako Plangintzarik dagoeneko prestatuz ez badu Plangintza bat noiz eta nola burutzeko asmoa duen erabakia har dezala ahal den eperik laburrenean.

- Erabako hori azalduz EUSKAL GOBERNUA/EUSKAL PARLAMENTUREN aldetik Deklarazio edo agerpen publiko bat egitea esijitzen dugu.

Eskaera nagusi honen ondoren beste eskaera bi ere egin nahi dizuegu:

1.- Gure Udaletxetako eragozpen nagusienetarikoa bat idazkariak erdaldunak izatea denez gero, era horretan euskaldun diren herritarrak, naiz Udal Batzordekoak, idazkariekin dituzten har-emana benetan zailak eta gogorrak eginaz, EUSKAL GOBERNUARI ahal den eperik laburrenean sor dezala Euskal Idazkari Eskola Ofizial bat, eskatzen diogu.

2.- Udal bakoitzak bere paper imprimatuak euskaratzen hasi ordez eta euskaratze hau batasun batean egitearren, EUSKAL GOBERNUAK edo Diputazioak egin ditzala paper imprimatu guztiak bi hizkuntzetan, gero Udalek erabili ditzaten.

3.- EUSKAL GOBERNUTIK/EUSKAL PARLAMENTUTIK, gure Udaletxetara inстен diren idatzi guztiak euskaraz ere bidaliak izatera.

Ez dezazuten uste izan zuei eskatzea beste ezer egiten ez dugunik jakinarazi nahi dizuegu beste gauza bi:

1.- Guk ere, Udal mailan eta Eskual mailan euskara bere lekuan jartzeko zen-

bait erabaki hartu dugula eta gure eskutan dauden zenbait gauza egiten hasiak garela: Udaletxe barrura begira batzuk eta Udaletxetik kanpora begira beste batzuk.

Honekin batera bidaltzen dizuegu gure Udaletxean hartu diren erabakiak Euskarari buruz.

2.- Euskararen erabilpena normalizatzeke zuei eskatzen dizuegun Plangintza orokor hori burutzeko behar den laguntza emateko ere prest gaudela. Baita ere Plangintza horretan eginkizun bezala gure eskualdeko Udaloizendatzen zaiguna gogoz betetzeko ere; jabetzen garelako euskararen erabilpena normalizatzea guztion artean burutu geharreko langintza bat dela.

# Herriarekin eta herriarentzat.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*  
*Kulxa* 

# TTANTTA

**Nire euskara eman zidan  
Bizkaiko herrixka horri  
amorro eta maitasunez**

Gure historiotxo hasten den momentuan, oraintxe bertan bezala, erbiak eta untxiak huroiek zanpaturik ziren. Erbiek sufritzen zuten gehien honen ondorioak.

Udara horretan erbitxo txiki txiki bat joan zitzaion erbi herri horri. Erbitxo horrek ez zuen bere nortasunari zegokion bizitzarako heziketa hartzekorik inoren handik. Bera jaio zen lekuan gehienak ziren untxiak eta erbitxo honi, hor geratzen ziren beste erbiei bezala, beren ohiturak irakasten zioten.

Baina Ttanttak, gure pertsonaiak, bere burua erbitzat ematen zuen, horrela zelako, eta udako egun batetan, bere sorlekua utzita, beste erbi batek eramana heldu zen herrixka horretara.

Ttantta oso txikia zen, erbikumea, baina burua argia zuen eta gainera ikasteko gogo gabe benetako egarria zuen.

Berak ba zekien bere sorlekua lehen-dabizi erbi herri bat izan zela, orain untxiek hartuta eta bera bezalako erbitxo asko zirela hor, untxien ohiturei jarraituzera beharturik.

Bere buruan ba zuen ideia argia: Ikasi, arin ikasi eta ikasita itzuli sorterrira eta beren Herriaren ohiturak beste erbitxoei irakatsi.

Erbi herrixkan oso zoriontsu bizi zen Ttantta. Seme bat berzala tratatu zuten.

Erbiek, herriko erbiek itxaropen handia zuten berarengana eta beraiek zekiten gutzia irakatsi zioten.

Erbiek zinez maitatzen zuten gure er-

bitxo, eta Ttanttak ere erbi horik bere famili eta herritzat hartu zituen handik aurrera.

Ohitura zaharrak ikasita, Ttantta bere sorlekura itzuli zen. Horretan beste erbiarekin batera lanean hasi zen. Bera erbi bat zelataz ez zegoen zalantzarik eta untxien ohiturei oraindik jarraitzen zieten beste erbitxoei irakasten hasi zen.

Baina erbiak eta untxiak menperaturik zuten (eta gaurregun ere ba dute, ez pentsa!) huroien buruzagia, huroi zahar eta oker hori hil zela eta, untxi eta erbiz desgizaturiko huroi zuhur batzu izkanbilak sortzen hasi ziren.

Gure erbitxo Ezker Aldean meatsen artean jaiotakoa zenez gero, herri horretako erbiak baino gorriagoa zen. Eta herrira joaten zenean mesfidantza ikusten zuten lehen bere lagunak zirenen begietan.

Bere aintzinako lagunak bera jipoitzen zuten eta huroiekin batera zebiltzaten.


Berak, arrabiazko malkoak begietan, bera erbi bat zela esaten zien, nahiz eta gorriagoa izan (berak bere kolorea maitatzen zuen...) eta huroiak, betiko etsaiak zirela orain beraiekin zabilzatenak, baina ez zioten kasurik egiten, barre egiten zioten eta irainak hartzen zituen erantzuntzat.

Azkenean, desesperaturik, ez zen berriz herri horretara joan.

EKATXA

# GURE HERRIAREN ABARROTSA EUSKARAZKO TELEBISTAREN HOTSA

JATORRIZKO EDO DOBLATU PRODUKZIOAK IKUSTEKO



- Garoa
- Kresala
- Aihen Ahula
- Justizia Txistulari
- Peru Abarka
- Vicki Vikingoa  
(doblaturik)
- El Hombre y la tierra  
(doblaturik)
- Le riche et le pauvre  
(doblaturik)
- Elsa Schelen

ZERGATIK EZ?

# OIHANAREN ABARROTSA



Amazoniar oihanaren itzeleko estalki berde eta aberatsaren ondoan, milaka brasildar gosez hiltzen da; batzutan pozoiez, anitzetan sakailketa garbi eta sinplez, ia egunero ehiztari zuriek antolatzen dituzten erahilketetan.

*"Indioak sakailatzeko dituzten metodoak ugari dira. Eskulangile indioen esplotakuntz merke eta bizikondizio infrahumanoez beste, indioen hauzoetan napalmezko bonbaketak egiten dira, haien elikadurak arsenikoz eta birusez igurtzi, errekek eta hibaiak pozoindu eta azkenez zirikapenak masiboki egiten dituzte" (ONU-k onarturiko informe batetik hartua. 1979.urtean).*



Albiste hauen aurrean mendebaleko irakurle askori duda asko sartzen zaio ez baitu askotan halako berririk irakurtzen eta inuzenteki, ea hori guziori gehiegikeria edo eta propaganda bitkoitz eta ezkutuaeren tranpa izanen ote den galdetzen dio oso osoan bere buruari. Beldur gara ezetz, hain handi eta zaratatsu izaten diren nazioarteko erakundeetatik iristen zaizkigun berriak.

## ERRESUMA BEREZIA ESTATU BATEN BARRUAN

Amazoniako erregeak, duda barik, Daniel Ludwig du izena. Amerikar honi dagokion enperadoregoa, Belgika baino handiago da eta zabaleran Holanda baino pixkat tikiago: 36.000 Km. guztira. Brasildar oneritziarekin finkatu den enperadorego honek, Brasileko nazio subiranotasunari mehatxu handia egiten dio gaur egun.

Zuhaitzak akabatzea, zuraren industria handia, autobideak, petrolio, produktu kimikoak eta zuraren beraren eratorrizko guztiak izaten dira enperadorego honen karakteristiketako batzu. Erresuma honetan, den dena da atzerritar. Amerikarrak, alemanak, kanadarrak, txiletarrak, japonarrak... brasildar bakarrak oraindik bizirik gelditzen diren indio apurak eta zenbait mulato, denak Daniel Ludwig-ek sortutako polizia eta harmadaren kontrolpean.

Ludwig-en jabego honetan bi hiri dago. Monte Dourado da hiriburua. Eraiki egin dituzte zubiak, kaminoak, industriguneak, aserrategiak eta aireportu bat. Inork eragozten ez badu, karbokimikaren bidez zuratik petrolio sortera da helburu nagusia. Honekin batera, bauxitaren esplotakuntza, aluminium ateratzeko fabrikak eta paper fabrikak. Zer esanik ez dago, kontrolgabeko esplotakuntza hauek planetaren ekosistemari lekarzkiokete kalte handiak, ez baitugu ahaztu behar Amazoniako oihanaz oraindik ere planeta osoaren oxigenoaren erdia produzitzen duenik.

Nekazal-industri honen aztarnak 1965.urtean bilatu behar ditugu. Mila milioi dolar sartu ziren eta 700 milioi gehiago sartzeko dira.

Brasilgo oihan hau zelulosa sortzeko munduko zentruenetako garrantzitsuena bilakatzen da baina proiektu eta egitate guztien artean beldurgarriena aberats pitxi honen azkena dugu: Zuhaitz moeta guztiak akabatzea eta beren zuratik, Karbokimikaren bidez, petrolio sortzea, Amazonia basamortua bilakaturik.

Ludwig-en enperadorego honetan ez dago inolako legerik, ehundaka ibilgailu matrikularik gabe paseiatzen dira. Itsasuntziak lehorreratzean aduanarik gabe egiten dute, lehorreratzeko baimenak Ludwig-en poliziek ematen dituztelarik.

## INFERNU BERDEA

Herialde hauetan bizi diren pertsonak, O.N.U.k, UNESCO eta OMSk munduko herrialdeetako pobreenak direla diote. Ez

da egoten medikurik. (1x100.000 bizilagun). Ez da egoten ur edangarririk, ez eta energia elektrikorik langileen txaboletan. Analfabetismoa ehuneko hirurogeita hamarrean ematen da. Ehuneko berrogeita hamarrean desenplegatutik daude eta, batzaz besteko urteroko lanegunak hirurogei besterik ez dira. Gosea kronikoa delarik, izurrite guztiak sortzen dira. Erremedioa bilatzeko asmotan, zenbait mediku arratoiak jan ditzatela gomendatu die hango bizilagunei. Hirietatik hurbil, oihan itzela dago. Bertan, gelditzen diren indioak bizi dira oraindik. Haiengana jotzen dituzte monopolio honen poliziek sakailatzeko. Dela urte, milioi bat indio kalkulaten zen. Orain aldez, gelditzen direnak oso urri dira benetan: 150.000 besterik. Itzelezko ezberdintasun honen arrazoia, dudarik ez, Ludwig-en poliziei esker eman zaigu. Brasiliako gobernamentuak ez du oraindik hau guztion kontra ezer egin. Papa-k egin zuen ibilaldian arazo hauek ez ziren sinplekiro esistitzen eta esistituz gero, Vatikanoko diplomaziak ba daki endredamakilarik ez egiten eta problema berezi eta arazo zehatzak

ahazteaz txapelduna da Eliza, zeren, ez baitagokio "Kristoren erresumari" eta "politikaz nahastatzeko eta zikintzeko arrisku itzela omen legoke".

Gauzak horrela, munduko zientzilari askok Amazoniaren hondamenaren kontra beren buruak altxatu dituzte eta egunero milioi zuhaitz ebakitzearen erritmoa segituz gero, (oraingoa) etorkizun hurbila oso beltz dakusate planetako bizilagunontzat.

Hondamen hauek egiterakoan, gainerako nazioetan debekaturik dauden defoliante eta intsektikariak erabiltzen dituzte Amazoniako floran. Gaur egun oraindik, sailkatu gabeko 80 mila landare moeta ezberdin gelditzen dira Amazoniako oihanean. (ezagututakoak baino gehiago)

Kontraste itzelez eta misterio handiez beteriko Amazoniako oihana hil zorian dago. Oso gaizki erabilitako zibilizazioa, oligarkiaren monopolioak eta transnazionalak zapaltzen ari dira. Horren ondoan gizona, gosez eta, aurretik prestatutako sakailaz hil egiten da.

T. Trifol



# AFGANISTANEZ, BERRIZ

Sei hilabete dira jadanik, sobietarrak Afganistanen militarri sartu zirela, eta lehen momentuan pentsa zezakeenaren aurka, ez zaie batere erraza izan, lortu nahi zuten egoera sortzea. Lehen hilabeteetan, gerrilla txiki baten antza zeukan erresistentziak, gero eta indar gehiago lortu egin du, eta Kabul-en inguruko azken gatazkek adierazten digutenez, ez daude prest etsitzeko, nahiz eta aurrean daukaten etsaia beldugarria izan.

Sobietarrek herri horretan sartzean zeuzkaten helburuak (estrategikoak, estatu lagun bat languntzea, petrolio eta Golko Persiaratik hurbiltzea, "proletar internazionalismoa" aurrera eramatea,...) aparte utzirik, argi dago oso zaila egiten ari zaiela beraien planak betetzea. Mendietan antolatu den gerrilla gero eta handiagoa da, batez ere, harmada afganiarretik pasatzen zaizkion soldatu eta harmengatik, honek beste efektu bat daukalarik, sobietarrek ezin direla orain inoiz afganiarretaz fidatu, alegia, zeren edozein momentutan, beste aldera pasa baitaitezke.

Honetaz gainera, lehen, hirietatik kanpo zegoen mogimenduak ez zeukan hiri handietan oihartzun handirik, baina zenbait aste dira han ere jendea mugitzen hasi dela: manifestaldiak, grebak... Hau gutxi bazen, gerrilerok azken asteotan Kabul inguruan egin duten ofentsiba beste buruhauste handi bat bihurtu da sobietarrentzat, zeren nahiz eta erasotzaileek Kabul hartzeko idearik ez zeukaten, prentsak lehen egunetan esaten zuenaren kontra, hori ezina baitzitzaien, gertaera horiek erresistentzia erreala eta indartsu bat esistitzen dela erakutsi baitute.



Bestalde, eta hiriburuko giroa "lasaitzeko", 10.000 soldatu gehiago heldu dira; ezin da, beraz, jakin hain urrundik zein neurritan dagoen desorekatua Kabul-eko giroa, baina zerbait badago, batez ere sobietarrek ikasle-manifestaldi baten kontra egin zutenean, ikasle batzu hil zi-

tuztenetik.

Honelatan, inork ezin dezake uka, herri afganiarrak, hein handi batetan, gutxienez, ez duela sobietarren eskusartzea onartzen; arrotzak izatetik aparte, ba dirudi metodo gogorrek erabiltzen ari direla erresistentzia ezerezteko, eta horrela



ez dute, noski, "sozialismo" irudi onik ematen. Ukaezina da, beraz, interbentzio militarra juzkatu gabe, Sobietarren hango portaera ez dela, benetan, positiboegi izan orain arte; nahi dutena esan dezakele Silvio Rodríguez antzera (ikus ANAITASUNAren 401. zenbakia) Moskuko sistema edonala ere defenditu nahi dutenek, baina nik ez dut inoiz ere onartuko injustizia, "justizia"ren izenean egiten bada ere.

Ez naiz hasiko berriz, aldizkari honetan egin baitut jadanik, Afganistan-era joateko sobietarren jokaera juzkatzen, baina bai esan, ordutik hona gertatu denak, nik han esaten nuena baino frogatzea ez duela egiten; jendea ez zegoen prest hori onartzeko, eta beraz, kontra egin dute gogor; ba dakit batzuk esango didatela, erresistentziaren azpian dagoen oinarri ideologikoa ez dela aurreratzaileegi, eta onartzen diet, baina halere, besteen praktika ez da ona ere ez, eta gainera, ene ustez, gerrilerok herri xumearen borondatea adierazte dute.



Beraz, gerrilaren indarra gutxitzen ez denez gero, sobietarren jarrera gero eta zailagoa da, zeren bultzatuta ikusten dira beraien posizioa gordetzeko, erresistentzia zapaltzera. Errepresioa handia da jadanik, eta bidea itzultzerik gabekoa bihurtzen ari zaie, zeren askok aipatzen duten irteera diplomatikoa ez dut nik posible ikusten.

Horrela, sei hilabete barru zer egongo da gertatzen asmatzen ibili naiz, eta pena ematen badit ere, bi posibilitate bakarrik aurkitu ditut: edo sobietarrek, indarrez, jadanik zapaldu dute erresistentzia, edo oraindik segituko dute gerrilerok mendietan burrukatzen, zapalkuntza handiegia izango balitz, eskandalosuegi izango bailitzateke. Baina ez dago, edo ez dut nik ikusten, beste biderik; batzuen indarra askoz handiagoa da oraingoz, eta beraz, besteek ez dute posibilitate handirik epe labur batean, baina, nortzuren indarrak iraungo du gehiago luzarorako?

María Jesús Esteban

## HEGO - AFRIKAN BELTZAK IKUSTEN ARI DIRA

Afrikako herriek eta mundu osoaren haien lagunek Zimbabwe-ko herriaren independentzia agurtu egiten zuten bitartean Hege-Afrikako Errepublikaren arrazistek (S.A.R.) afrikar kontinentearen imperialismoari eman zitzaion kolpea berehala nabaritu zuten, aintzina irabazitako kokatze estrateegikoak galduz. Dakikegunez, Rodesia (Gauro Zimbabwe) eta Hege-Afrika lagun minak izan dira historian zehar. Egoera politiko ia berdina zeuzkaten. Herri bietan guttiengo zuriak gobernatu eta gehiengo beltza menperatu. Bitartean, S.A.R.k Rodesia hartzen zuen tanpoizat, Afrika beltza eta independentetik bere burua bereizteko pribilegioak gordez. Baina Zimbabwe-ko errepublikaren babesean sortu diren nazioak benetako lotokiak direnak — ez dute hemendik aurrera etorkizun handirik izanen eta zinez, Hego-Afrikako arrazis-

ten etorkizuna beltz beltza izanen dela esan daiteke.

Arrazistentzat problemak ez dira soilik sortzen Afrikan barrenean. Kanpoan ere gaizki murgiltzen dira. Ez dago aspaldidanik Sha, zeinek ehuneko larogaitamarretan ematen baitzion petrolio gutzizatua. Gero eta arabiar nazio gehiagok uke egiten diote beren petrolio arrazistei. Isolamendua handitu zaie, munduko herri gehienek apartheid delakoa kondenatuz.

Hego Afrikako errepublikaren barruan gauzak ere ez daude ongi.

Beltzak burrukan sartu sarturik daude. Burrukaldiak eta manifestaldiak eguneoko ogia bilakatu dira eta boikota eta greba lehen bi ekintza iraultzaile bihurtu dira. Azken lau hilabeteotan zehar ikasle beltzek ez dute eskola bereizturik hartu nahi. Maiatzaren azke-

nean zazpi petroliogordailu bonbaz lehertu zituzten. Gobernamentuak bitartean, "arzo beltza" mitrailaka konpondu nahi du manifestaldietan "garbiketak" egiten. Hego-Afrikako errepublikaren etorkizuna itzuliezina dela ematen dio askori baina hala ere, betiko interesek problema luzatu edo desbidera lezakete. Izan ere, 350 amerikar elkartek kontrolatzen dute Hego-Afrikako errepublikaren ehuneko hamaseia. Estatu Batuetako sei mila elkartek harreman handiak dituzte Hego-Afrikakoekin. Eredu bat ematearren, cromo, banadio, platino eta antimonioren inportapen osotik herena Hego Afrikari erosten diote Batasuneko Estatuak, eta beti bezala hortxe egoten da kakea.

T. Trifol.

# ELKARRIZKETA

## \*Zer duzu maiteen mundu honetan?

— Gure Nazioeak ESKUKOTASUNA ardiets dezana, ta hunek ekharriren le-rauzkegu akoluthiak.

## \*Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

— Zoritzarrez, hemengo talde politikoa, ez dira euskal talde politikoak, zeren-eta ez bail dute nazionaraz egiten. Ez dakit, noiz ikasiko duten ezen, euskararik gabe ez dagozala, ez euskaldunik, ez abertzalerik, baizik-eta espainolkeria hutsa eta erdiphurdizko nazionalistaskilak.

Berhain, ba dagoz exzepzione batzu ere.

## \*Zentzu izen aipatuko zenituzke gustora? Zergatik?

Leizarraga, Axular eta Etxeberri (Saraka), euskal irazlerik onenak izan bait dira, ta Federiko Krutwig Sagredo euskal irazlerik onena bait da.

Batuarez irazten dutenetarik Txillardegia aipatuko nuke, bai eta J.R. Etxebarria ere, euskararen alde egiten duenarengatik.

Ikhuspuntu politikotik Fernando Sarrañh de Ihartza, Heiko Sagredo de Ihartza, edo Ihartzatar Heiko Sagredo aipatuko neraukezue, batez ere euskal prozesu iraultzailean eduki duen influentzia delata. Bai eta gure poeta ta bakhezalea Monzon.

## \*Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

— Literatura ona, ta batez ere euskaraz ba da. Adibidez, Krutwigek izkiriari dituen elheberria eta roman delakoa. Goi-Kultur-euskaraz, baliaturik thema interessantak aurkezten derauzkigu. Euskaldunokorok hoik (thema) irakurtea anankaiotzat jotzen dut.

## \*Zilegia al da balaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?

— Erran behar da, ezen gure herriko belhaunaldi biziak, gazteak baizik ez direla, zeren-eta zaharrek (edo-ta bihotz zahardunek) ez bait dute nehoiz ezer ere egin ethorkizunekoan alde, aitzitik beren burnetan dirua, dirua ta dirua besterik ez dadukate.

## \*Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzeta?

— Gnóthi seauton. Garaikarazko bi

## SARRERA

\*\*\*

Jende arrunta, gure betiko jende ixil edo bozgailugabedunari, kazetariarik normalean ez diogu kasu askorik egiten. Haien aburuak baliogabekotzat kontsideratzen dira. Haien esanak, mesanak direla sinestarazi nabi digute. Hala ere, halako jendeak, historiaren atal garrantzitsuena idazten obi du.

Jende ezezagunaren eritziak ez dira batera fruitugabekoak. Giza arruntaren ideiak gure pertsonaia famatuaren desmitifikapenerako balio dute. Denatan bezala, herriaren jakituria adierazgabeari lapurtu egiten diote beren sentimendu, eguneroko lanez probetxatuz.

Horregatik bain zuzen, ANAITASUNAK irakurle guztiei norberaren ideiak azaltzeko, sail ireki bat proposatzen die. Sail ireki bat eta joko psikologiko bat batera. Urte honetan zehar elkarrizketen bidez irakurleen eritziak azaldu nabi ditugu. Proposatzen dugun elkarrizketa guztiz libre eta atipikoa izan daiteke. Hala ere erantzuleak 10 galdera zehatzi beharrezkoa luke erantzutea, beste gainerako galdera—erantzunak berak gebituz, nabi izanen duen modu eta erara. Beraz, galderaerantzun guztiak, irakurleak egiten ditu, 10 horiek ezik. Hamar hauei ere erantzun behar dio.

Elkarrizketa guztiak anonimoak izanen dira. Hau da, Anaitasunak ez du argitaratuko inongo elkarrizketaren egilearen izena. Hala ere, idazten duenak beraren karnetaren zenbakia, izena, adina eta lanbidea azal batean bidaldu beharko digu. Azalpen horiek gabe ez dira argitaraturik izanen.

Honarte gure asmoaren erdia azaldu dugu. Goazen orain sail bonen bigarren partea azaltzera.

Bigarren parte hau joko psikologikoa duzue. Irakurleek elkarrizketuaren nortasunaren ageri batzu igeri behar ditu. Hauek dira: Adina (bost urtez go-ra behera), lanbidea, sexua, bizilekua (biri edo herri handi batetan biri den ala herri txiki edo baserri batetan biri den). Azkenez, elkarrizketa bakoitzari puntuak eman beharko dizkio, -5tik hasita +5 arte.

Puntu gehien hartuko duen inkesta irabazlea izanen da. Lehengo biru inkestei Anaitasunak txapela eta zerbait gehiago saritzat emanen dio.

Elkarrizketuaren datuak igerriko dituenari Anaitasunak urte beteko harpidetza dohaina eskeiniko dio.

Jokoaren bigarren parte honetan, ANAITASUNAREKIN lan loturak daukatenek ezin izanen dute parterik hartzea; bai aldiz, elkarrizketak prestatze kotan.

elhe haukiek adiarazten deraukutena, gu garena enthelegatzera heltzea lizateke.

## \*Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

— Euskalherrian, bere burua iraultzailatzat jotzen duen bati, baldin-eta euskara ez ba daki edo ikasi gura ez ba du, erran behar generaukeo, ezen espainola dela ala putakume anepistômôn bat.

Hemen egin behar den iraultza, euskal kultur-iraultza beharko luke izan, baina hortarako INDEPENDENTZIA lortzea nahi-eta-ezkoa gertatzen zaiku.

## \*Euskarak etorkizunik al du?

— Baldin-eta Euskalherriak ethorkizunik ba du, euskarak ere ukhanen du. Euskara hilaz geroz Euskalherria ere hilen lizateke; bai EUZKADI delako bat

geratuko lizateke, baina erdara bat tuaz.

## \*Anaitasuna aldizkariari bagazkio, gai berririk sartuko zenuke?

— Bi plauma laburdara klassikoaz sartuko nuke.

## \*Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez?

— Erabiltzen dituzuen euskara, bai-eta thema batzu ere, akribiaz eginda dagozala aithortu behar derautzuet.

## \*Eman iezazkiguzu hitz batzuen esanahia, mesedez.

— Bai, lexikon ttipitto bat emanen derautzuet:

ARDIETSI: erdietsi  
AKOLUTHI: ondorio  
LERAUZKEGU: lizhiguke  
NAZIONARA: nazional bizkuntza

# BIZIAK

**BERHAIN:** haatik, hala ere, horregatio  
**BATUARA:** euskara batua  
**IRAZLE:** idazle  
**IRATZI:** idatzi  
**DAGOTZA:** daude  
**DERAUZKIGU:** dizkigu  
**ANANKAIO:** premiatsu, beharrezko  
**ADIARAZI:** adierazi  
**NEHOIZ:** inoiz  
**GNOTHI SEAUTON:** ezagut ezak heura  
**URUA**  
**ELHE:** hitz  
**HAUKIEK:** hauek  
**DERAUKUTE:** digute  
**GENERAUEKEO:** genioko  
**NEPISTEMON:** ignorante  
**PLAUMA:** orrialde  
**AKRIBEI:** arreta, ardura, zehaztasun  
**DERAUTZUET:** dizuet  
**LABURDARA KLASSIKO:** lapurtera  
 klasiko

## JOKOAREN BALDINTZAK

### ● INKESTARI DAGOZKIONAK

- o) Irakurle guztiek parte har dezakete. Gure kolaboratzaileek ere bai.
- 1) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orralde bidali beharko dituzu.
- 2) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaz edo eta joskeraz. Zuzentzekotan geuk zuzen dezakegu.
- 3) **ASTERIZKOZ DOAZEN HAMAR GALDEREI BEHARREZKOA DUZU ERANTZUTEA.**
- 4) Zuk zure buruari gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
- 5) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak karnetaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz, ez da argitaraturik izanen.

### ● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal honetan parterik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak garbi azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutze bat markatuz.
- 4) Berdin egizi ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutze bat markatuz.

### PUNTU EMATEA

Elkarrizketa honi zuk zenbat puntu ematen diozu? (azaldu ezazu biribil batez)

5 4 3 2 1 0 +1 +2 +3 +4 +5

Zeure ustez, elkarriztatuak ondoko adina duke:

- 06tik - 23raino.....
- 23tik - 31raino.....
- 31tik - 39raino.....
- 39tik - 47raino.....
- 47tik aurrera.....

Zeure ustez elkarriztatua:

ernakamea da.....

gizona da.....

Zeure ustez elkarriztatua:

- herri handi batean bizi da.....
- herri handi batean bizi da.....
- herri txiki edo baserrian bizi da.....

Zeure ustez elkarriztatua lanbidea duke:

- Esku langilea.....
- langile espezializatua.....
- Arrantzalea edo Baserritarra.....

- Goi mailako kuadro teknikoa (ekonomista, inje- niadore, peritoa, medikua, abokatua), irakaslea, kazetalaria, etab.....
- Behar mailako kuadro teknikoa (Bulegolaria, idaz- karia, agentea etab).....
- Enpresa txiki baten jabea.....
- Maiizterra.....
- Goi barjesia.....

# anaitasuna

**ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon- tara:**

**ANAITASUNA**

**ZABALBIDE 68., BILBO-6**

**POSTA KAXA : 495**

**Tfno. bakarra: 94-4335808**

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

# Edith Holdenen egunkari izkutua

"Ekainak 24: Gaur, uda hasten da..."

"Kukua, hegaz doala kantatzen duen hegazti eder bat da.

Eta, zenbat eta gehiago ku-ku errepikatu,

hainbat eta urdinago bihurtzen da zerua..."

Liburu berezi bat dut esku artean: "Naturalezarekin bizitzearen zorientasuna". Hirurogei ta hamar urtetan izkutuan egon ondoren, hara non faksimil edizio koloredun batez agertzen zaigu liburudendetan.

Idazlea?... Emakume inglesar ezezagun bat, Edith Holden izenekoa. 1906.eko urtean zehar, emakume honek ihardun zuen bere, inguruan ikusten zituen flora eta fauna kuadeerno batetan, marrazten eta apunteak hartzen. Eskuz. Arreta eta maina handiz.

Oso inpresio handia ematen duen liburu bat da. Agian, bere gogoeta, bere bertso maitagarrienaz orniturik eta naturalista izateatik aparte, akuarelagile zoragarri bat agertzen zaigulako... Dena den, hara hemen, egun iñolaz ere, idatziko ez zen liburu bat. Presarik gabeko bizitza baten hatsa dario Edith Holdenen liburuari. Are gehiago, nolabaiteko naturalezarekiko harreman galduak, sensibi-

litate berezi bat, iñoiz mojeen artean batearazten ziguten kuaderno baten kutsua du liburu honek. Letra txukuna, marrazki zehatzak, kuaderno apaina denborak horiztua...



Nahiz eta galdutako mundu baten agerpen misterio tsua izan, emakume hau oso gertu sentitzen dugu orrialden artean... Nolako izango zen? Zer gertatu zitzaiokeen beste mendetan, beste egoeretan jaio izan balitz?

Zer gertatu zitzaiokeen beste mendetan, beste egoeretan jaio izan balitz?


Zer gertatu zitzaiokeen beste mendetan, beste egoeretan jaio izan balitz?

Zer ez zitekeen izan, gizonezkoa izan balitz?... Londresa joan zela, eskultore batekin ezkondu zela eta liburuak ilustratzen zituela, besterik ez dakigu...

Emakumeak hasi gara beste emakumeen lan izkutu, aberats eta galduak errekuperatzen, hau baita premiazko lan bat, inork egingo ez diguna... Beste Edith Holden gerta ez dadin, emakumeek egindako lan isilak argitarara atera daitezela eta balio duen makumerik itzalean gera ez dadin.

Edith, anonima eta maitagarri hori, Tamesisen gaztandoko loreak biltzen zegoelarik, ito zen. 49 urte zituen.

Mariasun Lande



Zure arazoak  
sentitzen ditugulako

BETI GAUDE  
GURE ZERBITZUAK  
BEHAR DITUZUN  
TOKI ETA MEMENTUAN



*BILBAO/VIZCAYA*  
*Talde segurtatzailea*



Beti zeure eskura

## KOMUNEAN IRAKURTZEKO GAIK

### Euskarak duen diakronia (3)

Hala ere Euskal Herri analfabtuarentzat eginik ez dauden letrero horiek biziki pozten gaitu ikusteak. Nork esango luke "Cambio de sentido" eta "Norabide Aldaketa" ez dela bat?, nork bata bestearen itzulpen zuzen, zehatz eta filologikoa ez denik? Eta gure filologo ospetsu guztiak laster bilduko dira Leioan eta euskarari azterketa eta zatiketa anitz eginen diote. Ez al da premiazkoa fonologia sinkroniko eta diakronikoaz luzatzea? Zer litzateke euskararen egoera Martinet-en hitzaldiari entzungo ez bagenio? Euskaltzaindiak hortako, zenbait goardia zibil gonbidatu bearko lituzke sinposium honetara, Lemoizeko kontzentrazioleruan bildutakoen batzu batez ere, zeren handik irtenda eta paisanoz jantzita euskarak duen diakronikotasun handia erakusten baitute kamino bazterretako euskal letreroak ziriborraturuz. Ez al duzue inoiz halako diakronikotasunarik ikusi? Saia zaitez gau batez gasolina pote batez euskal ziriborraturako letreroak apaintzen eta ikusiko duzu zer nolako sinkronikotasuna hartzen duzun berehala. Gauza honetaz gain, biziki poztu gaitu Arabako Diputazioak zeinek benetako elebiatsunaren alde betiko eta ohizko hitzalditxo botata erdaraz askotxotan solik jo eta ke ari zaigu eta horregatik ez ditugu ulertzen ahal euskal zonetan ipini dituzten iragarki elebidunak ala elebitasuna bakarrik euskal zonetan?

Euskararen eta Euskal Herriaren problemak ez dira zoritxarrez iragarki berri ala zaharrokin konpontzen eta txantxak idazteko gaur gogorik ez dudanez, erabaki dut nire komunia honetako langunei kasurik egin gabe, azken mokordoa sakatzea eta oportetara jotzea.

T. Tritol

## Pedagogiaren objektua eta haurrekin zer eta nola lortu nahi dudana



**Zalantzarik ez. Haurra da pedagogiaren (pedagogia zientziaren) objektua. Baina, beste giza zientzian bezala, pedagogiaren kasuan ere, objektua subjektu da aldi berean. Eta haurra, pedagogiaren objektu dena, pedagogia honek berak subjektu mailara altxatu bear du. Hori du helburu, eta hori lortzen lagunduko dioten pedagogia-teknika guztiak ongi etorriak izanen dira.**

Baina, kristautasuna nahiz marxismoa, Mendebaleko erara bizi ditugu guk. Areago esango nuke, kristautasuna, Sortaldean jaioa izanik, mendebaldu (okzidentalizatu) egin dugu. Kristautasunak Mendebala eta honen zibilizazioa bataiatu ditu, baina, ordainetan, Mendebaleko zibilizazioak musu pozoitsua eman dio. Eta nonela, sortaldeko askoren begietara, mendebaleko kristautasun, marxismo eta zientziaren atzean domeinu — izpirtu bera dago maskara ezberdinen atzean.

Kristautasun proselitistari kristautasun kontenplatioa, marxismo eboluzionista-inbaditzaileari marxismo estrukturalista-etnologista eta zientzia inperialistari zientzia ekologista oposatu behar zaio, Taoismoen Yin-a Yang-i oposatzen zaion bezala, printzipio arrari emea oposatzen zaion bezala, gaua egunari eta iluna argiari.

Baina, kontuz!, Sortaldeak egiten digun kritika ez da kritika exotiko bat. Mendebal bakoitzak du bere sortaldea eta sortalde bakoitzak bere mendebala. Eta hemen bai dela beharrezko sustraietara itzultzea: mendebala eta sortaldea oraindik diferentziatu gabe zeudeneko garaia, traszendentzia imanentzian eta imanentzia traszendentzian zeuztateneko gunera, arra eta emea oraindik hermafrodita zireneko garaia, natura kultur bilakatzen hasi zeneko eta kulturak natura errespetatzen zueneko garaia, genital-haroaren nagusigoa oraindik sagaratu gabe dadukan haur perbersopolimorgoaren estadiora, nerbio sistema bejatatiboaren sinpatikoa eta parasinpatikoa oraindik bereizi gabe zeudeneko hartara edo nerbio sistema zentrala eta bejatatiboa oraindik bat zirenekora, nahiago bada.

Adarrak enborrean elkartzen dira. Mendebala eta Sortaldea, orientatzen dakien gizon, emakume, HAUR eta GIZARTE arengan elkartzen dira. Eta haurrak orientatzen ikasi behar du, espazioaren eta denboraren koordinatetan. Euskal haurrak euskal Lurraren euskal Historia bereganatuz lortuko du horizonte bat edukitzea, horizontean argi bat, euskal haur bakoitzarengan isladatuko dena.

## “ESKOLA NAZIONALETAN” EUSKARA IRAKASLE”

Haurrek euskara ikastea de nire helburua. Areago kontretatuta, euskaraz hitzegin, irakurri eta idazten haurrei irakastea. Baina ez hori bakarrik. Euskara euskal gizartearen sorkari da eta euskal gizartearen euskararen sorkari da. Hizkuntza ez da superestruktura bat. Behar bada, ez eta azpiestruktura bat ere. Estrukturen sailkapena posibilitatzen duen estruktura bat baizik. Ehiztariek beren hizkuntza hizkera dute, baina hizkuntzak posibilitatzen du ehiza; klasemaila bakoitzak bere hizkera du, baina hizkuntzak posibilitatzen du lana eta produkzioa (eta produkzio bitartekoen jabetzaren arabera sailkatzen dira klasemailak, neurri batean).

Euskara irakatsi erdal haurrak euskal gizartearen bizitzeko gai egin nahi ditut, beren inguruaz jabetu ondoren, hau kritikatu eta hobeaotzen

Baina, inoiz, ez inoiz ere ez dira berdintzat hartu behar pedagogia eta haren teknikak. Teknika pedagogikoak pedagogiaren barruan sartzen dira, noski, baina pedagogia ez da bere tekniketara mugatzen.

Pedagogiaren oinarrian haurraren eta gizartearen ikuspen filosofiko (antropo-soziologiko) oso bat dago. Mundukustera bat. Mundulerkuntza bat, nahiago bada. Eta ikustera oso horren barnean hartzen dute zentzua pedagogia-teknikek. Textuak bere zentzua kontextuan hartzen duen bezalaxe.

Honela, pedagogiaren eta beste edozein giza-zientziaren oinarrian, munduaren (gizon, emakume, HAUR eta GIZARTEaren) kontzeptio ezberdinak dakusatzagu. Hor ditugu, esate

baterako, kontzeptio kristau eta kontzeptio marxista; zenbaitentzat antagonikoak, beste zenbaitentzat konpatibleak (elkargarriak) eta konplementariak askorentzat. Edonola ere, nola ukatuko dugu, kristautasunaren nahiz marxismoaren sustraian ikuspen eboluzionista bat dagoenik? Klasegabeko gizarte primitiboaren “ideian” nola ez errekonozitu Bibliako paradisial?, eta gizarte (zergatik ez emarte?) komunista zoriontsuaren ukronia eta utopian nola ez errekonozitu kristauen zeru utopiko eta ukroniko hura?, eta, hasierako paradisuatik jaurti gaituen bekatutik askatzeko Liberazio Historian nola ebitatuko dugu martirien parean iraultzaileak jartzea edo lehengo santuegiaren ordez egungo iraultzailean erahilketaren urtehurrenak ospatzea?!



saia daitezzen.

Hamar-hamabi urtekin euskara ikasi behar duen haurren kaso, ez da noski bere lehenengo hizkuntza euskara izan duenarena (zenbaitetan, eskolara hastean euskara ahanzi dutenen kasoan hala bada ere).

Haurren eboluzioan, afektibitatearen eta adimenaren berezketan, hizkuntzak zerrikusi zarrikusi handia du. Adimenak afektibitatearen aurrean lortu duen autonomia, hizkuntzaren bidez lortu du. Autonomia erlatiboa, noski. Afektibitatez bapatean, itsu-itsuan eta inmediateki lortu nahi lukeena, eskura ezina gertatzen zaio-sarritan haurrari: amarekin egon nahi lukeenean adibidez, eta amak beste zerbait egin behar duenean. Orduan, eta ama ama aurrean ez dagoelarik, haurrak jolasez eta hizkuntzez errepresentatu egingo ditu amaren joan etorriak. Eta dei egiten ere ikasi egingo du.

Jakina, haurra hizkuntza jakin batez mintzatzen den gizarte familia batetan jaiotzen da eta jaioberritan ahozka ditzakeen hainbat eta hainbat fonemetatik, ezarian ezarian, inguratzen duen hizkuntzari dagozkionak "hautatzen" joango da. Hobeto esanda, ingurua izanen da haurrek ahozka ditzakeen hainbat adierazleetatik batzu hautatuko dituen; inguru horrek duen hizkuntzari dagozkion aierazleak, hain zuzen ere. Adierazle horik, eta ez bestek, hartuko dute adierazi bat inguru horretan. Honekin esan nahi da, hizkuntzak fonema batzu inposatzen dizkion bezala haurrari, mundura izateko era asko ere eskaintzen dizkiola. Neurri handi batetan, hizkuntza bat kultur gordailu bat da, gure aurretikoek ingurua egokitzeke erabili izan dituzten sistemen bilduma moduko bat. Tradizioari lotzen zaio neurri horretan. Baina, beste neurri batetan, eta hizkuntza bakoitzak eskaintzen dituen posibilitateei esker, hitzun bakoitza sortzaile ere bada. Areago oraindik, sortzaile behar du izan. Hizkuntzaren arauak jarraituz batetik ("normaltasuna") eta esaldi berriak, konbinapen berriak eginez bestetik ("normaltasuna") eta esaldi berriak, konbinapen berriak, eginez bestetik ("normatibitate"), lehengo kulturaz hornitu den gizakia kultur gile gertatzen da.

Baina, eta lehengora gatoz, hizkuntzak adimenaren eta afektibitatearen berezketaren eragin badu haurraren, hizkuntzak afektibitatea eta adimena, bi-biak, kokatzen diren zoru komunean ditu sustraiak. Eta zoru horrek segurua behar du izan.

Zoru horri zimenduei dagokien sendotasuna damaiona "funtzio amatierra" deitua behar du izan. Haurra oraindik bere funtzio elementalenak betetzeko gai ez denean, amak han egon behar du beti prest, oraindik zillbor-heste ikustezin batek elkartuko bailitu ama eta haurra.

Zimendu hori ongi finkatuta gero, haurren





...n sensorio-motrizak helduago daude-  
...n, bere premien asabetetzea atzeratu eta  
...ntzea posibilitatuko dion errepresentazioa  
...a hizkuntza) sartuko da eszena. Hemen,  
...k edo haren ordezkokoak zerrikusi handia  
...kko du.

...au guztiau, euskara lehen hizkuntza izan  
...n haurrari dagokionez. Baina, zer esan  
...-hamabi urtez ikasi behar duenari buruz?  
...rudi, kasu honetan, zailago dela sustraiak  
...n zoru sakonean botatzea. Hamabi-  
...abost hilabetekin "ez" esaten ikasten  
...n haurrak, aldi berean burua ezker-eskuin  
...tzeko gai delarik, lurra gozatu berria du  
...traiak botatzeko. Baina, nork prestatuko di-  
...uskal Herrian, intelektualki ezezik afektibo-  
...e euskara irakasteko kondizio egokiak (80  
...-tikitatik hitzegiten ez dutenentzat)?

...ori lortzen ez badugu, euskara eta euskal  
...tura galduak ditugu.

...mina eta afektibitate oraindik bereizi ga-  
...eaudeneko zoru komun hartara itzuli behar  
...u, haur bati euskara irakatsi nahi diogun  
...lizean. Eta haur bakoitzak egin behar du  
...keraren bidez afektibitatearen eta adimena-  
...berezketeta. Irakasle bakoitzak bete behar di-  
...bat bestearen atzetik "funtzio paternala"  
...ak hizkuntza dakar, amaren ausentziekin  
...eratu. Eta eginkizun hori ongi betetzeko in-  
...aren laguntza behar du.

...uskal Herriaren hizkuntza, hemen bizi den  
... bakoitzarengan zimendu hain sendoan  
...eta diezagunean, haurra hizkuntza horretan  
...bista izanen da.

...hauru horietarantz zein bidetatik?

...haurrak, subjektu izaten hasteko, ez du hiz-  
...ntza ongi ikasi arte itxoin beharrik izango.  
...lago oraindik. Hizkuntzarik ez du ongi ika-  
...o hasiera beretik subjektu izaten hasten ez  
...ta. Erabiliko dugun metodoak eskuhartzera,  
...azera, sortzera eraman behar du haurra;  
...bela aspertu egingo delako bakarrik, bes-  
...denik ez dagoelako baizik.

...hizkuntza zentzun guztietatik jaso behar du  
...rek: nora joan gaitzke telebista edo ban-  
...sines barik?, eta non ikasiko dugu ba-  
...nominiaz hitzegiten mahaian ez bada?  
...ratza", "mikatz", "gazia" eta "geza" k  
...ndi eta karga afektibo ezberdinak dituzte,  
...oloko pupitrean itzulpen bezala ematen  
...gunean edo sentitzen-perzibitzen ditugu-  
...euskaraz sentitzen eta perzibitzan ditu-  
...en. Eta hemen ere, zapora ezberdinen ge-  
...logian, sustraiaraino itzultzen saiatu behar  
...hizkuntza batetan maisu bihurtu nahi  
...anek). Hizkuntza batek, belarrietatik bezala  
... behar du begietatik, ukimenetik, usaimen-  
...edo dastamenetik. Eta zentzuzun ezberdin  
...nien integraketa ere (dela dienzefaloan, tala-  
...n, dela cortex-ea) euskaraz egin behar



Zentzun eta perzeptzio alderdiari buruz esan duguna luza dezakegu alderdi mugikorrera. Aho kordak ezezik, gorputz guztia mugitu behar da hizkuntza batetan; eta giharre estriatuak ezezik, giharre leunak ere bai. Harraren motrizitate guztia euskaraz, nerbio sistema zentralaren esanera dagoena bezala, nerbio sistema autonomoaren esanera dagoena ere: haurrak euskaraz barre egiten, euskaraz negar egiten, euskaraz hitzegiteen eta euskaraz kaka egiten ikasi behar du.

Honela, sentikortasun eta mugikortasun zentzesiko eta diakritikoz ihardun behar badu haurrak euskaraz, eta hori beharrezko du sortzaile izan nahi badu, haurra bizitzako situazio erreala errepresentatzen jarri behar dugu hizkuntza horretan (nola egin hori berrogei haur ditugunean klase bekoitzean?). Ikasitako elkarrizketak errepresentatzea asko gustatzen zaie haurrei: taldeak eginez, haur denek eskuhartzen dutela, denek ikasten dute eta ongi pasatu ere bai.

Sarritan haurrek ez dute beste haur baten interbentzioa errespetzen, nahiz ta norbera ari denean denak erne egotea nahi izan. Hemen, ez da erraz "narzismoa"-ren eta "altruismoa"-ren oreka topatzen, batez ere haur kopuru gehiegia dugunean e.a. (Lan hipotesi bezala sikanalisk erabiltzen dituen "niaren libidoa" eta "objektuaren libidoa" kontzeptuek legun diezagukete, behar bada, fenomeno hori deskribatzen).

Kopuruaz gain, badira beste problema batzuk ere, haurraren eskuhartzea zailtzen dutenak. Horietatik bata hau da: beste gaietako irakasleek sarri-sarritan "beren gaiak" zeharo zuzenduak eta dirijituak ematen dizkietela. Orduan, haur hauei beren iritzia eskatzen zaienean, edo gaien aukeraketa plantetzen zaienean, uste izaten dute irakasleak ez dakiela zer eta nola eman. Eta berentzat festa bat dela. Bakoitzari esaldiak egin eraztea, marrazkiak eskatzea eta taldekako lanak bultzatzea beharrezko izaten da haurraren partizipazio akuilatzeko.

Gaurko metodoek aukera handia ematen dute haurraren eskuhartzea bultzatzeko. Haurrak ez ditugu jarriko, gaur, hiztegi-zerrendak eta deklinabide aspergarriak ikasten, behinola latin eta greko ikasleak iharduten ziren bezala. Hitzak beren kontextuan sartzen eta beste kontextu batera aldatzen pozik ihardungo dira haurrak, kontextu hori haurraren munduaren kontextu zabalagoan sartzen denean.

Haurrari zail egiten zaio, kontextu batetatik ateratako hitz bat beste kontextu batetan sartzea (situatzea), edo kontextu batetan lehen erabili ez den hitz bat sartzea. Baina, arazorik latzema motibapenarena dugu. Gure lantxoan, zeharka bederen aipatu dugun arazoa.

# ESOTERISMOA (1): ERDI HAROKO JOKABIDE MAGIKOA

XII, gn. mendean zehar sortu ziren Europako mendebaldean hiru mogimendu esoteriko nagusi. Haietako bik Frantziaren Languedoc eskualdean ikusi zuten argia, kataroen heresiak eta kabala mogimenduak hain zuzen; ikusbera da nola, alde batetik, kabala planteatu zen hasiera batetik mogimendu mistiko bat bezala zeinen jatorriak Alejandriako "esenio"en komunitate galduetan oinarritza litezken. "Esenio", greziar hots batetik datorkigu, "osioi" delakoa puro edo garbi esanahiaz. Eta beste aldetik, nola kataroek ere hartu zuten izena ekialdetik etorritako erizietatik, hain zuzen ere garbi esanahi horrekin.

Hirugarren mogimendu hori tenplarioena zen. Eta oso ikusberatzat jo daiteke jakitea ezen, nahiz eta tenplarioak nola edo hala katolikotzat eta Paparen menpekotzat hartuak izan sekula ere ez zituztela beren buruak kataroen etsaiak aldarrikatu, azken hauek guztiz sakaiturik izan zirenean kruzada harrigarri bat zela medio. Eta juduei dagokienez ez bakarrik harreman onak izan zituzten tenplarioekin, baizik eta berauen defentsapean ere noiz behinka agertzen dira.

Goian aipaturiko gauzak errazki har daitezke kasualitatetzat beste ekintzeko hiru loratze hauen ondoan sekula ez onarturiko sinkretismo bat, egiaren bilakaera berdintsu bat zegoela. Eta arrasto guztien arauera egiaren bilakaera hau ez bide zetzan fede itsu batean baizik eta berezko barnearen ezagueraren menperatzean sinismen ofizialeak deliberatuki ezabatu zutelarik denporetan zehar, botere espirituala erdiesten ari ziren neurrian.

Lojikoki, bilakaera esoteriko bat sinbolo batzuk direla medio manifestatu behar da; sinbolo hauek koinzidituz gero helburuzko egokitasunez sinistu beharra dago. Kata-



ro tradizioa aipatu ditugun persekuzioengatik ezin zenean jadanik manifestatu, sinbolo kultural nagusi bat bihurtu zen: trobadoreen "amodio kortesa" delakoa. Trobadoreek jaso zuten hizkera kriptiko eta nahastarrian poesia erotikoaren itxuraz ezaguera trazendentarako bide esoterikoa erakusten zuten egiatan. Sistematikoki agertzen da poemagintza honetan arrosaren sinboloa, gizakiaren helbururik garbiena bezala, beti guztiz arantzez boro bildurik merezi ez dutenek lor ez dezaten. Hala diosku bederen Jean de Meungek, "Roman de la Rose" delakoaren trobadorerik garrantzizkoenetakoa, ezberdinketa argi bat egin ez ere, arrosa gorria eta zuriaren artean.

Eta arrosa sinbolo hau funtsezko sinboloa da juduen kabala mogimenduentzat jadanik Salmoetan ikus dezakegun bezala, nahiz poema profetikoetan ere, non arrosa gorriak eta zuriak errepresentatzer dituzte zigorturiko eta purifikaturiko gorputzak, errespektiboki, Israel-en. Tenplarioek ere, beren alde, sinbolo hauek jasotzen eta berenak bihurtu zituzten, koloreak erabiliz (kapa zuriak, gurutze gorriak) eta are gehiago, tenplarioen konbentuetan egondako inguruetan gaur eguneko gaitzatzen zaizkigun izen toponimikoak, erdarazko "espina" izenarekin erlazionaturik Espinaredo, Espinosa, Zarzal. El Espineta bar luze bat.

Esan dugunez, Erdi Haroko kabala Languedoc-en sortu zen. Hartan ere idatzia zen lehen testu kabalistikoa. "Sefer Yetsirá" delakoa. Lehen maisu honen dizipulu batzuk Espainiakoak ziren, nahiz Ishak ben Latif Toledokoa edo Jacob ben Jacob Soriakoa; oso laster erakarri zuten dizipulu hauek kabalaren jakintza Segovia, Valencia, Cáceres, Gerona, Toledo, León edo Mallorcara. Hiri hauetan, sinbologogoen itzalpean estudiatu egiten zuten

jakintza definitiborako bidea metodo okulista tradizionalak zirela medio.

Eta bide hori berori zen tenplarioak afa-nean bilakatzen ari zirena. Kasualitateaz edo ustegabeko kointzidentziaz pentsatzeke lekuri ez dagoela iruditzen zait, posible dela eta, gaur egun ere, tenplarioen finkapen peninsularrak orduko hebraitar gunerik nagusiaren inguruetan kokatzea. Gehiago ere esan genezake, Aragoi erreinuan gertatu zela batzutan ezen tenplarioek espresuki eskatu zituztela hobeak txokoak beren tenploak eraikitzeko hiri konkistatu berrietan; Mallorcan esaterako "juderia" hauzunea "partida Templi" izendatu zen azurrerantzean Temple ordearen konbentu nagusia bere arimuan baitzegoen. Beste lekutan, aljama (juduen hauzunearen izena) errege beraren babespean zegoen (Valenciakoa, Jaime-I, arekin). Bide horretik pentsa liteke hurbiltasun geografiko hau hurbiltasun ideologiko bat bihurtu zela; Mallorcan bertan, Kabalaren zientziak eta mistikak mundutik gorde iraungo zuten luzaro, baina indirektuki Raimon Llull bezalako besteren gogoen bidez azalduko zen: Raimon Llull-ek bere "Ars magna" delakoan ez bakarrik bere inbestigaketa metodoan baizik eta itxura jenialak diren kosmo ezaguerari buruzko teoria batzuk kontsideratuz, nabari dago kabalaren esentziarik sakonena.

Zenbait gune peninsularretako juduen presentzia masiboa ezin liteke Errekonkistaren joeragatik bakarrik esplikatuta (mendetan zehar despoblaturik izan ziren hirien berpiztea), ez eta esan juduen presentzia hori heterodoxoak deritzaten mogimendu

batzuen sorketarekiko kontenporaneitatea koinzidentzia zenik ere. Adibidez Leon-en kasuan; hiri honek suposatzen zuen juduentzat, eta haien artean kabalistentzat, egiatzko espiritu litatearen eta jakintzaren xede bat. Eta Leon-en bertan, aldien gauean keltarren errito druidikoak igaroz ikusi izan zituen alderdi horretan sortzen zen, aljama juduarren nagusigoarekin batera, katarismo ernamuin izugarri bat, Don Rodrigo apezpikuak krudelki jarraikia eta exterminatua; dirudinez, Leon-go biztanleek lurperatu zuten kataroen tenploa baina ondorio aparente bakarra Leon guztia erauntsi zuen sute irenkor bat omen zen, diabolikoki geldituz salbo aljama eta kataroen etxeak.

Lucas de Tuy-ren kronikaren arauetan, Leon-go kataroen errakuntz dogmatikoak honako hauek ziren: Elizaren kantuen eta errituen errefusa, kanpai deiarena, eta "hiru besoz eta hiru iltzeko" gurutzearen benerazioa. Jakina, gurutze hau T itxurazkoa da, tenplarioena.

Hemen, bapatean, mogimendu okultisten harreman esoterikoen oso kataiatze nabaria dugu. Leon erreinuan bertan tenplarioek Ponferradako gazteluan erdiratuak neurrigabeko domeinuak zeuzkaten. Gaztelu honetan, gaur eguneko hondamendi oso bat izatearren, ikusi ahalakak ziren eta dira dorretan marrazturik dauden TAU (T gurutze) batzuk; izan ere, domeinu hauek Fernando II erregeak emanak zitzaizkien tenplarioei, errege honen trobadoreen eta kataroenganako begikotasuna oso ezaguna delarik.

Joanes Urkijo



## BOLIGRAFO

Oso txikia nintzelarik jaio nintzen mundura, neure mundutxora, eta inguru-mariako kezak eta ezinegonak neure altzoan zamatzuz, pentzera sofistikatuegiak eta burutapen bihurgunetsuenak bestetarako utziz, orri zurixken lagun mina nintzen bihurtu, tintaren ohekide betikorra. Sarritan, agian maizegi, oldartzen nintzen kole-ratsu, menderatu nahi ninduen eskuaren kontra. Eta Blasteko izugarria jasan behar izaten nuen, indarge, mantso-mantso.

Jaio nintzen nuen, indarge, mantso-mantso.

Edonondik zetozkidan begi-jotze inplakableak. Ni ez nintzen errudun baina. Ezen, zein dateke nire hobena gizartea garatuz baldin badao? Ostera lapitzek hori ez dute inoiz ulertu, eta ba dirudi sekulan ere ez dutela adituko. Eta nik adiskide izan guranahi nuke, denon adiskide: eskuen adiskide, sudurzuloen adiskide, Txinako tinten adiskide, pentsamenduek eta hitz idatzien adiskideago... Askok ikasi baitut orrialdeetan zehar ibiltzen, paper mota guztiakin saltatu baitut eta nahiko eklektiko bihurtu ere.

Ba dira izaten Komunikatiboago nagoen unekak, zeinetan urtzen bainaiz atseginez, sartzen naiz bilakari zurtasunean, ziprztintzen ditut hut-suneak oro. Eta holakoxeetan ez ditut lakot kondoiak, ezin baitezaket senti barnekotasunaren biluzitasun osoa, nire indarraldiak galtzen dira paretan hozkituen aurka. Ez da bidezko. Ez girozko.

Gainera, lerrutzaille hipersentikorrok berehala nabaritzen ditugu geure arteria eta zainen odol geratuen ingurutzaile estrainioak, eta ezgara askatasunez mugitzen. Gizakia bezalakoxegiak gaituzu. Noski, askok uste du guzti baliogabeko eta hezigaitzek garela, hori ezkulturaren arazoa da baina. Neuk, Boligrafo Idazleorrieta, ez dut ezelakotxo beldurrik neuretasuna azaltzeko; eta praktik erantzi ezin badituz ere, prest nago estaltzen nauen inkonpresiozko oihalarri haize emateko, inoiz baino neugo agertzeko.

Esana geraten da, bada. Boligrafoen hitzñoak dira. Hitzaren menpeko.

BEHEAN NAGOEN

Karlos Santisteban

# BIMINI, KULTUR EZEZAGUN GILTZA BATEN

- 1979ko martxoaren 11an, Bimini ugartearen operadore polako batek itsas azpian zeunden kultur ezezagun baten aztarnak arkitu eta fotografiatu zituen.

Dare Yavorki deitzen den operadorea, Bahamas ugarteetara itsasoaren misterioei buruz filma bat egiteko joan zen, sobietar filmazio-talde baten barruan lan egiten zuen. Eta itsas azpian zegoenean ikaragarriko etxe eta harresiak agertu baten ondoan zegoen izugarriko bide zabal iruditu zitzaion, eta ondoko aztarnak portu eta kai baten antza osoa zeukaten. Han, ur azpian atera zituen argazkiek, zirrara berdina ematen dute.

- Bimini ugartearen inguruetan eta ia ia egun berdinetan, Richard Watgate arkeologo amerikanoak estatua eder batzu aurkitu zituen. Estatua hauek haien egileen aurrerapen teknikoa argi eta garbi azaltzen digute.

- Gaur egun, aztarna hauen aurkikuntza, amerikano eta sobietikoen Atlantiko Itsasoan eramaten dituzten bilakerak, eta Egeo Itsasoan J.Y. Cousteau komandanteak egindako esplorazioen bidez, lurralde hauetan piramideen kultur haundi bat zegoela esan dezakegu bildurrik gabe.

Eta oraindik gehiago ausartuko bagina, kultur zabal horren zilborra Atlantiko Itsasoan egonen zela, esango genuke ere. Dire ustez, zilbor hau ez zan oso txikia izango, Andes mendikatean hasiko zen, Atlantikoaren erdirikan pasatzen, Egeo Itsasoan, Kretaren iparraldean bukatzeko baizik. Eta kultur zilbor honi, Platoren Atlantida deituko bagenio... ?

- Lurralde hauekin Ameriketako kultur haubdiek, Kreta, Egipto eta Mesopotamiakin diruzten berdintasunak esanahi logiko bat izango zuten behintzat. Goiko esaldietan aipatu ditudan lurralde kultur

hauen tarteko zubia edo korapilo galdua izan zinterezekeen.

## TIAHUADAKO-KO ZIBILIZAZIO GALDUA.

- Andes mendietan dagoen hiri hontan, (Tiahuanakok euskaraz "hilerria" esan nahi du), hasten bagara ondo begiratzen, monolito erori asko ikusiko dugu, eta haien tartean igeltsero eta langileeen lantresnak. Monolito eta estruktura zahar hauek, bi aldiz aztertzen baditugu, portu baten oroimena ekarriko digute.

Potsdam arkeologoak portu honen zahartasuna Kristo baino lehenko 9.950 urtean kalkulatu du ere gutxi gora behera zabalekin, noski! Eta orain etortzen da garrantzitsuena: Platonek bere idazkietan Atlantidaren urperaketari buruz, Solon, Kritias, Krantor, eta Saisko sazerdoteen ipuinak jarraituz, kontatu zuena, urte berdinetan gertatuko zen.

Baina Atlantida geologika hau urperatu zen bitartean, itsasetzean zegoen Tiahuanako altxatu zen eta gaur egun 9.950 metro ditu itsaso gainetikan.

Bainan lurralde zabal hau ez zen osoa urperatu, ugartekatea bat gelditu zen baizik. Eta ugarte hauen tarteko haundiena Saisko sazerdoteen liburutegietan Poseidonia izenarekin ezagutzen zutena. Eta orain bai Platonen Atlantidarekin sartzen gabela.

## KRETA, EURASIA, AFRIKA ETA AMERIKETAKO PIRAMIDEEN ZIBILIZAZIOEN AZKEN ZUBIA.

Ameriketako kultur haundiek, Mesopotamia, eta Egiptokinduten paralelismoa maila guztietan, oso argi agertzen zaigu,

eta batez ere beren piramideengatik.

Bainan harrigarriena Kretako zibilizazio minoika dugu. Eta Egeo Itsasoko ugarteak, Atlantida horren azken aztarnak izango balira...?

Kretan dauden aztarnak aztertzen, gaur egun bere kultur minoika ospetsua ezagutzen dugu piska bat. Badakigu oso kultur garrantzitsuena izan zela, bainan oraindik ez dakigu nola eta zergatik desagertu zen.

- Oraindik zihur inork ezin du esan, bainan bere desagertzea hor dago, desafio bat bezala.


Gaur egun Kreta ondoan dagoen Thera ugartearen sumendi baten izugarriko kaldera dela demostratu da. Kristoren baino lehenko 1.500 urtean kalderarik ez zegoen. Bainan urte horetan, (fluktuazio haundi batekin), sumendia su eta garratzen hasi zen, eta erupzioarekin lurrikara haundi bat sortu zen ere. Zorigaitzez Thera ugartearen epizentrotzat zuen ondarendia, ez zen hor gelditu, eta 35 eta 40 metroko uhainak altxatu ziren. Zihurren uhain hauek, Thera sumendiaren erupzioekin, eta lurrikarekin batera Kretako kulturarekin bukatuko zuten.

Lan labur hau egitean ez nuen ezer demostratu nahi, ezta askoz gutziago ere ez, bakarrik Mesopotamia, Egipto eta Erdi Aste Hegoamerikerako kulturetan dauden paralelismoetan (piramideen paralelismo bidez ere), piska bat zirikatzea.

- Hortako behar nuen zubi bat, kora pila bat, lurralde hoiak komunikatzeko, eta zubi hori Bimini eta Kretako ugartearen arkitu dut. Ezdakit ideia hau ontzat edo txartzat hartuko duzuten, baina hala ere hor dago.

Karlox Barrensoro

# NAFARROAKO ERRIBERA HERRI BERA DUZU



HERRI BERRI

ZARRAKASTELU

MENDABIA

KAPARROTSU

KADREITA

MILAGRO

FALTZES

MARTZILLA

TUTERA

KASKANTE

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....


**EROSTEKOTAN  
 ZURE HERRI BEREKO  
 BURU EMATZAK**

**EROS!**

# DONOSTIAKO XV GENUINO SABOR



*Mercer Ellington zehaztasun guztiak zaintzen.*



*Dizzy Gillespie eta Freddie Hubbard tronpetajoleak aurrez aurre eta biak irabazle.*

# JAZZALDIA AMERICANO

Notek jauzi egiten zuten, ilargiak argitzen ziren Missisipiko uretan, entzuleak berengana-  
z.

1619. urtean Virginia Estatuan, Afrikatik zet-  
zarzten esklabu beltzen lehen desontziraketa  
zen. Beltzak, bere etengabeko lanaren on-  
orioz, bere frustrazioa, bere askatasun gogo-  
ra, bere erritmoa deskargatu behar zituen,

arrazak beltzaren ariman sortutakoa, baina  
esklabutza eta lanaren markotik at ulergaitza  
den musika baten bidez.

Musika hau, Afrikako tribuen eta Antillas  
uhartetako beltzen erritmoen nahasketan  
oinarritua, zuriak musikari errefusa eta beltza-  
ren jatorrizko ekspresio bezala sortu zen.



Erbi sartu beharrean, Gato sartu ziguten.

Hemendik aurrera dena historia da. Nueva  
Orleans-eko jazz, soul, spiritual, gospel,  
swing, bop, cool, free jazz, etab, beltzen musi-  
kak bere bilakaeran izan duen zenbait forma  
besterik ez dira. Bitartean gizarteak musika  
hau industrialeztatu egin du, Jazz-a Amerika-  
ko beste irudi batetan bihurtu arte. Eta Ameri-  
katik ere etorri dira aurten Donostian izan diren  
profesional guztiak, nahiz Gato Bardieri Hego  
Amerikakoa izan.

## OROIPENAK SOINU EGINAK

Talde amateurren lehiaketaren (geroxeago  
aztertuko dugu hau) sari banaketa eta irabazle-  
en jardunaldia bukatu ondoren gau orogarri  
batetaz gozatu ahal izan genuen. Historiarako  
gelditu diren Duke Ellingtonen melodiak desfi-  
latu zuten gure aurrean, Mercer Ellingtonek  
zuzentzen duen orkestarari esker. Duke Ellingto-  
nen semea izateak eragin handia izan du  
Mercer-en lanean, nahiz berak hasieran bere  
bidetik jo. 1939. urtean sortean sortu zuen be-  
re lehen orkestra, Calvin Jackson, Dizzy Gilles-  
pie, Clark Strayhorn eta beste batzuk bertan  
izanik. Gero Sy Oliverren taldean eta Cootie  
Williams-en orkestan ere parte hartu zuen. Be-  
re asmoa, aita galdu ondoren, Duke-ren orke-  
stako partaide izan zirenak biltzea izan da, bere  
aitaren oroipena eta kantuen soinua bizirik gor-  
detzeko.

Benetan merezi zuen moldaketa horien  
swing-a, Anita Moore-n ahotsaren malgutasu-  
na, bakarlarren jardunaldi zoragarria eta Cootie  
Williamsen tronpeta mitikoa entzuteak. Lasti-  
ma, bukatzean aulkitik jeiki beharra, ametsak  
porrot eginez.

## TRONPETAREN LILURA

Sinestezina zirudien D. Gillespiek orain dela  
5 urte bere jardunaldiaz sortu zuen giroa gairi  
zezakenik. Baina errealtateak aurreikuspen  
guztiak garaitu zituen. Hura zen tronpeta jot-  
zea, hura jazz-a sentitzea! Honelako zer bait  
izan behar zuen D. Gillespiek Pasadena Civic  
Auditorium-ean 1948. urtean "bop-a" kon-  
sokratu zueneko gauak. Azken urte hauetan  
berarekin jotzen duen neurrizko hirukoarekin,  
showman honek, bere 63 urtetan, jendeari  
gustatzea eta konbenzitzea lortu zuen, bere  
tronpetaz berak duen guztia entzuleriari ema-  
nez, Roy Eldridge eta Charlie Parker-ek bere-  
gan utzi zuten eraginari leial izanik.

Dizzierentzat —prentsa mahaian esaten  
zigunez— musika hain da zabal, berak oraindik  
brasildarren esperientziak eta jazz-en sustraiak  
diren gospel eta blues ikertu behar dituela, de-  
na musika bihurtzeko, inongo etiketarik gabe.



Eta entzun geniona benetan MUSIKA zen.

Han geunden 9.000 pertsonen aurrean, azaldu zen ere Dizzie-ren ikasle den Freddie Hubbard. Tronpetista honen prozesua nahiko berezia izan da, oso talde inportanteetan parte hartu ondoren, hala Arte Blakey eta Quincy Jonesenean, bere tronpetaren soinu argi eta indartsuarengatikezaguna egiten hasi zen, "hard bop" joaz. Gero "Ascension" eta "Jazz free" diska nagusien grabaketan parte hartu zuen, rock and roll entzuten zuen jendea jazzarentzat berganatzeko asmoz, baina esperientzia hau ez zen oso ondo irten, jende bere musikatik ez baitzen ateratzen. 70. urtekadan jazz fusion jotzen hasi zen (honek jazz free baina zehatzago neurtzen du erritmoa). Urte ho-

bitan defraudatu zuen: eginaldiarengatik eta beregandik espero genuenarengatik.

Ez da gaur goizeko kontua eta bere jardunaldiaren inguruan sortu ziren zirkusantziak hobe izanen da ahaztea, (dena dela, bera ez zen denen erruduna, hau ere garbi utzi behar dugu). Baina musikaz mintzatuz, hau baita interesatzen zaiguna, eta bakoitzaren dastamenak alde batera utzirik, "Under Fire", "El último tango en Paris" edo "Chapter" en garaia atzean gelditu dela onartu beharko dugu denok. ikusitakoa eta entzundakoa kontutan hartuz. Bere saioa goiargi gabe eta deszentratua izan zen. Taldeaz hobe ez hitzegitea, etab, etab.



Art Blakeyk Jazzaldi zoragarri bat itxi zuen.



rietan USOP taldearekin jotzen zuen zenbait doinu entzun ahal izan genuen, Jazzaldiaren hirugarren gauean. Bere jardunaldia, zehatzasunez betea, erdian jo zuen balada kontutan harturik, zoragarria izan zen; nahiz entzuleriari kontentatzeko asmoa nabari izan, batzutan eginaldia matizetan urriagotuz.

#### EZ DA URRE, DIZTIRATZEN DUEN GUZTIAN

Itxarobizi ezohitu bat sortu zen Jazzaldian Gato Barbieriren inguruan, Bere izena guztien ezpainetan eta Donostiako kaleak komentarioz beterik zegozten. 44 urteko argentinarraren honen jardunaldiak jendea

Hitz batez, eiti sartu beharrean, Gato sartu zigutela.

#### THE BLACK IS BEAUTIFUL

Zuritik beltzara, diborengandik profesioralarengana, autoatsegiratik talde lanera, 12.000 pertsonen itxarobizi hutsegimatiak azken saioaren apoteosira.

Art Blakey-k entzuleria bere aukietatik goratzea lortu zuen, swing ez baterik o jazz moderno eta talde lan interesgarri baten bitartez, bere 10 lagunei egiten utziaz, eskolan bat erantzutea (esate baterako F. Hubbard, Chucl Malone, Horace Silver eta Clifford Brown-ekin batera) rarekin ikasi zutela kontutan hartu behar dugu!



jendeari jazz saio ahaztezin bat eskeintzea  
portanteena dela jakinik.

Entzundako standar-ak, big-banden ohizko  
musikak eta bakarlari guztien jardunaldia ikas-  
bat izan ziren beste interprete batzuen ize-  
bakarrik gidatu zirenentzat, kalitatea mer-  
talarekin askotan mokotatua dagoela sus-  
tatu gabe.

Urrezko krisketa bat izan zen hainbat jende  
reganatu zuen XV. Jazzaldi honentzat.

## ESTEEI BURUZ

### ON STOP

5 izan ziren aurten, aukera baten ondoren,  
amateurren lehiaketan parte hartu zuten  
taldeak. Gehienen musika, dirudienez maila  
metan Europan (taldeak Ingalterra, Belgika  
Alemaniakoak ziren) gaur egiten denaren  
taldeak, O. Coleman, John Coltrane edo Chick  
break, esate baterako, markatu duten jazz  
moderno eta jazz kontemporaneoaren artean  
dezakegue.

Aipamen berezi bat merezi dute, eta ez ira-  
hutsarengatik, Ingalterrrako taldeek, be-  
n jokoaren eduki zuten indarrarengatik eta  
talde berzala oso ondo berrendikatuak  
gaur, musika tresna bakoitzari askatasun eta  
libertate bat eman ziotelako.

Hitz batez, kontzertu jator xamar hasteko.  
dago gaizki.

Sariak honela banatu zituzten epai-  
mahaiokoe: Talderik onena: Ingalterrrako  
"Stinky Winkles" izan zen eta John Donald-  
son bakarrietan, bigarren geratu zen "The  
Trevor Kaya Quarter" taldekoa.

## EUSKAL HERRIKO TALDEEN JARDU- NALDIA

Entzuleri gazte eta ez oso ugari baten aurre-  
an euskal taldeek beren musika aurkeztu zu-  
ten, jazz egiteko pretentsioz baina rock saio  
bat (dena dela, gauza hauetan hitz sailketa bat  
egitea zaila dela denok dakigu) eskeiniz, bi-  
garren geratu zen Bizkaiko "Alen" taldea eta  
irabazle izan zen Donostiako "Eiderjazz" ez  
ezik. Bikote honek, kitarren arteko elkarrizketa  
jator bat sortuaz, brasildar musikarekin zerikusi  
bazuen jardunaldi meloditsu eta gozo bat es-  
keini ziguten. Getxotarrei jazz moderno baina  
standard xamar bat entzun genien.

Garbi dago oraindik bide luze bat gelditzen  
zaigula Euskadin jazz talde on batzuk edukitze-  
ko. Arazoak hor daude, musika honen zabal-  
kunderik hasita, kostuak arte. Aukera hau pre-  
obetxugabekoa izan ez dedin espero dugu,  
horrela Jazz-a urtean 5 egunetan zehar entzu-  
ten den zerbait baino gehiago izanaz.

## "JAZZ"

Aipatu beharra dago hemen Donostiako XV.  
Jazzaldiaren barruan izan zen aldizkari baten

aurkezpena. Espainian hain gutxi ezagutzen  
den musika honen inguruan sortzen diren  
berriak ezagutzeko aukera izango dute Jazz-a  
maite dutenek. Bartzelonan (Fin Ediciones,  
Diagonal 310) egingo duten aldizkari honek  
"Jazz" du izenburutzat eta hileroko aterako da,  
ahal bada behintzat. O zenbakiak, aldizkariaren  
sailak aurkeztu ondoren, Bill Evans-i buruzko  
artikulu sakon bat dakar.

## IKUSITAKO FILMAK

- TO THE COUNT OF BASIE
- NEWPORT JAZZ FESTIVAL 1962
- CHICAGO BLUES
- LARRY JOHNSON
- HOOTIE'S BLUES
- GOOD MORNIN' BLUES
- IT'S A MEAN OLD WORLD
- FRANKLY JAZZ

Pozik gera gaitzke hurrengo urteko Jazzal-  
diaren zain, Jazzak urtean behin bizi den zer-  
bait ez duela izan behar jakinik.


Lortuko al da zerbait Euskadi mailan? Finka-  
tuko al dira Jazz jotzen hasi diren taldeak?  
Herrietan jotzeko posibilitaterik edukiko al du-  
te?

Interesa duzuenentzat ondorengo zenba-  
kian, zein irratitan eta zein ordutan jazz entzun  
dezakezuen, informatuko dizuegu.

X. PORTU




"Stinky Winkles" Gipuzkoako herrietatik ibili zen, amateurren lehiaketaren  
irabazle izan bait zen.



39.

38.




## LUZETARA

1.- Haur-nahia.- 7.- Harremanak gelditzea.- 13.- Itxura, eite.- 14.- Galdera.- 16.- Laster, agudo.- 17.- Barreka.- 19.- Joglars.- 20.- Arerio.- 21.- Alpeetako etxe.- 23.- Troiako.- 24.- Erramazku, mukeri.- 26.- Oinez joan.- 27.- Eta, frantsez.- 29.- Gipuzkoako sailndutegi.- 30.- Atziki femenino.- 31.- Huraxe, bizkaieraz.- 33.- "Orain ohera noa, bihar arte".- 34.- Alkitrana.- 35.- "...ez dut amets haundirik..."- 36.- ...izan (ihardun).- 37.- Bere emaztea gaztu zen.- 38.- ... Boleña, Inglaterako erregina.- 39.- Defuntu, hil.- 41.- Zeregin, behar.- 43.- PNV.- 45.- Txi Minh.- 46.- Pablo... Gernika-ren konposatzailea.- 48.- Rhenio (symbolo kimiko).- 49.- Zapi, trapu.- 50.- Ekialdeko merkatu.- 52.- Seme-alaben seme-alabak.- 55.- Gari edo arto, adibidez.- 57.- ...Laboa.- 58.- Errusiako hegazkin.- 60.- Oso lehor.- 61.- Tindagai urdin.- 62.- Burmuin (barianta).- 64.- Lo sakon patologiko.- 65.- Zelan (forma enfatiko).- 66.- Inbertipenarentzako diru.

## GOITIK BEHERA

1.- Kontaktua.- 2.- Karl edo Groucho.- 3.- Aise.- 4.- Zurginaren tresna bat.- 5.- "... bizi naizen lurrean..."- 6.- Borta.- 7.- Hirri barneko ibilgailu.- 8.- "Egun ..., Don Pepito..."- 9.- Kikara handi.- 10.- Quai d'..., frantses kanpoko Arazoen Ministeraritza.- 11.- Izbek.- 12.- Partikula negatiboak.- 15.- Aukera partikula.- 18.- Ebakitzeko tresna.- 20.- Askotan pilota-leku ondoin dagoena.- 22.- Euskal kirola.- 23.- Bizkaiko hibai.- 25.- Bat, gaztelaniaz.- 26.- ikara.- 28.- ... Gorritxu.- 30.- Indiako musik tresna.- 32.- Modu, gisa.- 35.- Arka-egilea.- 38.- Zoroastro-ren erlijioan, tzarkeriaren iturburua.- 39.- Belarrekiko lur zati.- 40.- Galdetzeko hitz.- 41.- Euskal sindikal talde bat.- 42.- Arrazak, endak.- 44.- Orokor.- 46.- Organo digerigarria.- 47.- Goldatutako lur.- 49.- Lur zati.- 51.- Langile automatiko.- 53.- Ehun fin.- 54.- "Berriz" adierazten duen aurrizki.- 56.- Vixnu-ren gizakunde-etarik bat.- 58.- Irlanda ta Britainia Handia arteko irla.- 59.- "... euskaraz; zuk zergatik ez?"- 62.- Gallio (symbolo kimiko).- 63.- Euskadiko matrikula bat.



Jaunak:

T.xillardegia-Altuna-Mitxelena eztabaidari buruz: Pozik nago, Euskal Herrian —ingelesez esaten dugunez— izara zikinak denon begien aurrean garbitzen dituzuela ikusteagaitik. Hobe da, akusazioak **Anaitasuna**-ren horrialdeetan ikustea, zoko ilunetan entzutea baino.

Gai honetan, nik ez dakit egia zer den, eta ez dakit nork duen arrazoia. Baina hizkuntzalaria ta euskalaria naiz, eta gauza bat ba dakit: Santamañenekoak esaten duena, 403. zenbakiko 12. horrialdean, ez dela egia: "Mitxelenak ez du

askorik idatzi azken aspaldi hontan" (hau da, 1964. danik) —**La Lengua Vasca** liburuxka soilik idatzi duela esaten du.

Nire ustez, **kualitatea** iker-tu behar da, eta ez kuantitatea. Baina kuantitatea aldetik, azken 15 urteotan, Mitxelenak 70 artikulua baino gehiago argitaratu ditu, gehienak euskari buruz (ikus J.J. Arbelaz-ek egindako bibliografia, **Las Etimologías Vascas en la Obra de Luis Michelena** bere liburua). Beste bi liburu ere bai eman dizkigu Mitxelenak: **Fonética Histórica Vasca**-ren bigarren edizioa,

askoz handitua, eta testu liburu polit eta util bat: **Zenbait Hitzaldi**. Gainera, Mitxelenak azken urteotan egin duen lana aurretik egin zuen bezain ona da —haren 1972-ko "A Note on Old Labourdin Accentuation" eta haren 1977-ko "Verbos Compuestos Vascos", bi solik aipatzeko, euskalaritzaren lan ederren artean daude.

Santamañenekoaren beste akusazioei buruz, ezin dezaket ezer esan. Baina euskal linguistika arloan, azken 15 urteotan ere, inork ez du Mitxelenak baino gehiago egin.

R.L. Trask  
Lecturer in Linguistics



**ERROSE ETXEBARRIA**

Zuk egindako euskararen aldeko borroka geuk jarraituko dugu

1970/1979 **Una  
década más  
de entrega  
a Vizcaya.**



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**



**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA

# Estamos a su servicio para que Gane Más.



## Abono de sueldos

El Servicio de Abono de Sueldos consiste en cobrar su sueldo a través de la Caja, evitando riesgos, disponiendo de la máxima comodidad en los cobros y pagos que tenga que efectuar, y disfrutando de muchas ventajas.

### Soldaten Abonua

Soldaten Abonu-Zerbitzua honetan datza, alegia zeure soldata Kutxaren bidez kobratzen duzula, honela arriskuak baztertzen dituzularik, egin behar dituzun kobrantza eta ordainketetan erosotasunik haundiena duzularik, eta ondoko abantaila hauetatuz baliatzen zarelarik.

### 111 Oficinas en Guipúzcoa

Primera ventaja: la comodidad que le supone poder resolver sus gestiones en cualquiera de nuestras sucursales.

### 111 Bulego Gipuzkoan

Gure sukurtsaletatik edozeinetan zure gestioak erabaki ahal izateak dakarkizun erosotasuna.

### La red de Cajeros Automáticos más amplia de la provincia

Para realizar ingresos, retirar fondos, pedir talonario, solicitar extracto de cuenta, etc... tanto de día como de noche.

### Probintziako Kutxazain Automatikoaren sarrerik hedatuena

Egunez nahiz gauetz, sarrerak egin, fondoak ateratu, taloi-liburuskak eskatu, kontu-laburpena eskatu eta. egiteko.

### Puntual información de sus operaciones

Zure eragiketaren orduko informazioa

## Rapidez y seguridad

### Bizkortasuna eta segurtasuna

### Domiciliación de Ingresos y Pagos

En la Cuenta de Abono de Sueldos podrá domiciliar todos sus cobros: haberes, ingresos por transferencia, prestaciones del INSS e INSALUD tales como pensiones, accidentes, desempleo, etc... y efectuar cómodamente todos sus pagos: recibos de luz, agua, teléfono, gas, colegios, sociedades, contribuciones, impuestos, etcétera.

### Sarrera eta Ordainketen helbideratzea

Soldaten Abonu-kontuan helbidera ditzakezu zeure kobrantza guztiak, (hartzeakoak, transferentzia bidezko sarrerak, INSS eta INSALUDen laguntzak, adibidez pensioak, istripuak, desentregia, etab.; halaber, erosotasun guztiz egin ditzakezu zeure ordainketa guztiak, (argi, ur, telefono, gas, ikastetxe, sozietate, kontribuzio, zerga, etab. eraberrin ordain-agiriak).

### Tarjeta 6.000

Con la Tarjeta 6.000 podrá obtener dinero en efectivo en las 8.000 oficinas de las Cajas de Ahorros Confederadas y pagar sus compras en más de 300.000 establecimientos de todo tipo.

### 6.000 Txartela

6.000 Txartelaren bidez Aurrezki Kutxa Konfederatueta 8.000 bulegotan dirua ateratu eta zeure erosketak 300.000 establezimendu baino gehiagotan ordaintzeko modua daukazu.

## Auto 6.000

Para adquirir carburante y pagar otras prestaciones para su vehículo en cualquier estación de servicio, talleres, garajes, etc...

### 6.000 Autoa

6.000 Autoa taloen bidez, zeure ibilgailuentzat erregaia eta beste zerbitzuak lor ditzakezu.

### Credito Automático

Por el hecho de cobrar su sueldo a través de la Caja podrá obtener en el acto un CREDITO AUTOMATICO y acceder a cualquiera de los restantes créditos de la Caja.

### Kreditu Automatikoa

Zeure soldata Kutxaren bidez kobratzeagatik, horregatik bakarrik KREDITU AUTOMATIKO bat berehala eta Kutxaren beste kreditu edozein lor ditzakezu.

## AHORROCAP80

### Ahorrocap

Mensualmente, sorteos exclusivos para quienes utilizan el Servicio de Abono de Sueldos.

### Ahorrocap

Soldaten Abonu-Zerbitzua darabiltenentzat bakarrik egiten diren hileroko zozketak.

### Obras Sociales y culturales

Instituto Oncológico, ASPACE —Servicio de diagnóstico e investigación de la parálisis cerebral—, Premios literarios para especialidades en euskera y castellano, Certámenes de pintura y escultura, ciclos de conferencias, proyecciones, etc.

Y para los jóvenes, nuestro Club

Juvenil, las Colonias Infantiles de Goyeneche y Ribavellosa, la Oficina de Jóvenes, Becas de estudio y la Ciudad Laboral Don Bosco, el Centro Cultural de Nazaret, los E.U.T.G., etc. donde se imparten estudios para su formación profesional o universitaria.

### Kultur eta Gizarte-Ekintzak

Instituto onkológico, Buru-elbarrientzako ASPACEko diagnostiko eta ikerketa-zerbitzua, Literatur Sariketarak sail berezitan euskaraz eta gaztelaniaz, Pintura eta eskultura-lehiaketak, hitzaldien, emankizunen ikastaroak, etab.

Eta zure seme-alabentzat, Gaztekoen Elkarte, Goienetxe eta Ribavellosa-ko Haur-udalekuak, Gazteen Elkarte, ikasketa-beka eta heziketa profesional edo unibertsitate-mailako ikasketak egiten diren "Don Bosco" Hiri Laborala, Nazaret Zentru Kulturala, G.U.T.I. etab. dauzkagu.



## SERVICIO DE ABONO DE SUELDOS



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA  
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA